



Kulturaren
Eusko Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2025

Publikoen segmentazioa: EAEko parte-hartze kulturalaren patroiak eta profilak

Parte-hartze Kulturalari buruzko 2024ko
Inkestaren emaitzen azterketa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Publikoen segmentazioa: EAEko parte-hartze kulturalaren patroiak eta profilak

Parte-hartze Kulturalari buruzko 2024ko
Inkestaren emaitzen azterketa

> Aurkezpena

1. Sarrera
2. Gako kontzeptual eta metodologikoak

> EAEko publikoak: ikuspegi orokorra

3. Parte-hartze taldeak eta mailak

> Xeheki: nola parte hartzen da eta nortzuk dira?

4. Nola parte hartzen den: parte-hartze kulturalako patroiak
 - > 4.1 Omniborismo bizi-bizia
 - > 4.2 Omniborismo lasaia
 - > 4.3 Aktiboak eta konektatuak
 - > 4.4 Kontsumo klasiko ertaina
 - > 4.5 Noizean behingo parte-hartze analogikoa
 - > 4.6 Digital errezeptiboa bakarrik
 - > 4.7 Ez-publikoa

5. Nortzuk dira: profil soziologikoa

- > 5.1 Kapital kultural heredatua
- > 5.2 Profil soziodemografikoa
- > 5.3 Kondizio sozioekonomikoa
- > 5.4 Dimentsio psikologikoa: hesiak, balioak eta motibazioak
- > 5.5 Beste zaletasun eta betebeharrak

> Laburpena eta ondorio

6. Profil bakoitzaren fitxa
7. Emaitzen interpretazio globala
8. Laburbilketa: alderdi nabarmenak

> Eranskina

9. Inkestaren fitxa
10. Metodologia

Laguntza teknikoa:
ICC – TEKNECULTURA UTE

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES S.L.

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

Aurkezpena

1. Sarrera

Parte-hartze kulturalari buruzko inkesta handi bat egiteak kulturaren eremuan herritarren portaeraren eta iritzien argazki orokor bat lortzea ahalbidetzen du, kulturak duen garrantzi sozial handia kontuan hartuz bereziki. Orokorrean garapen pertsonalerako eta baita gizartearen grapenerako ere funtsezkoak diren praktika sozial batzuez ari gara.

Kulturarako sarbidean pertsonak dituzten partaidetza-patroi edo ereduak, motibazioak eta aurre egin beharreko zailtasun-faktoreak sakonki ezagutzeak hobetzeko arloak eta jarduteko aukerak identifikatzen laguntzen digute. Gainera, azterlan mota honek sarbiderako desparekotasunak eta arrakalak atzematea ahalbidetzen du, konpondu beharrekoak direnak eskaintza kultural inklusiboagoa eta eskuragarriagoa bermatzeko.

Arrazoi horregatik EAEko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkesta Kulturaren Euskal Behatokiaren eragiketa estrategiko bat da. Gauza bera esan daiteke txosten honi buruz, izan ere, datuek eskaintzen dituzten aukera guztien barruan, zehazki parte-hartze kulturalako patroi eta profilak atzematera bideratzen baita. Zer parte-hartze kulturalako patroi mota daude EAEn? Nolakoak dira patroi horiek garatzen dituzten pertsonak?

Horiek dira oinarrizko ikerketa-galderak herritarrengan oinarritutako begirada batetik publikoen ezagutzan sakontzeko helburuarekin, politiken orientabide eta diseinurako esanguratsua den ezagutzarako, herritar guztien begirada orokor bat lortuz.

Helburu horretarako, txosten honek, lehenik, emaitzen ondo informatutako irakurketa baterako gako kontzeptual eta

metodologikoak aurkezten ditu. Bigarren lekuan, bloke nagusiak atzemandako parte-hartze patroiak aurkezten ditu, bai eta patroi horietan biltzen diren pertsonen ezaugarriak ere. Lanaren zati nagusia da eta, azken batean, emaitzen sintesi eta interpretazio global batekin ixten da, nabarmenena aipatzeko azken apartatu labur batekin batera.

2. Gako kontzeptual eta metodologikoak

Egindako EAEko publiko kulturalen segmentazioa 2024ko EAEko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren datuei egindako [Klase Latenteen Analisiaren](#)¹ teknikaren aplikazioan eusten da.

Atzemandako talde, segmentu edo patroiak (klase latenteak) parte-hartze kulturalako 15 aldagaietatik datoz guztira.

Partaidetza errezeptiboko 10 aldagai hartu dira kontuan, 2 partaidetza aktibokoak eta 3 partaidetza digitalekoak. Partaidetza aktibo eta digitalaren kasuan, jardueren izaera dela eta, aldagai guztiak eskala bakar batean multzokatzearen alde egin da, moten arabera bereizita (1. taulan laburpen bat eskaintzen da, praktika artistiko amateur eta digitalen eskalak itxuratzen dituzten aldagaiak xehetasun handiagoa duen

eranskinean emanez). Algoritmo batek sortzen ditu publiko-taldeak, aztertutako aldagaien osotasunean parte-hartze kulturalako antzeko patroia bat erakusten duten pertsonak multzokatuz.

Ariketa honen lehen balio erantsi bat zera da, portaera kulturala zuzenean beha daitekeela eta, horretatik abiatuta, taldeak eratzen direla. Hau da, ez dira talde demografikoak eratzen (adina, sexua, bizitokia...), baizik eta talde kulturalak zuzenean (zer praktika egiten dituzten eta zer intentsitatekin). Aldagai demografiko edo sozialek (diru-sarrerak, ikasketa-maila...) bigarren urrats batean balio dute karakterizazio gisa.

[Kulturaren Euskal Behatokiaren aurreko azterlanetan](#)² adierazi denez, bai aldagai esplikatibo tradizionalak, bai parte hartzeko moduak ere, aldatu egin dira, ohiko hurbilpenetarako erronka bat planteatuz. Azken urteotako parte-

hartze kulturalako askotariko moduetatik eta [datu demografikoetan oinarritutako segmentazioen mugekiko kritiketatik dator egindako ariketa](#)³.

¹ Informazio metodologikoa eranskinean zabaltzen den arren, interesatuek teknika ezagutu nahi badute aplikazio-eskuliburua azter dezakete:

<https://cran.r-project.org/web/packages/poLCA/poLCA.pdf> (2025eko otsailean kontsultatua)

² Euskal Kulturaren Behatokia (2019) "[Parte-hartze kulturala Euskal Herrian: moduak, arrazoiak eta inpaktuak](#)", Euskal Kulturaren Behatokia, Eusko Jaurlaritz

³ Hadley, S., Johanson, K., Walmsley, B., & Torreggiani, A. (2019) "[Reflections on Audience Data and Research](#)". Cultural Trends, 28(2-3), 81-85.

1. taula. Parte-hartze kulturalako patroik edo taldeen eraikuntzarako erabilitako aldagaien laburpena

Modua	Esparrua	Kategoriak
Hartzailea	Antzerkia	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Dantza	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Kontzertuak	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Zinema	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Liburutegia	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Liburutegia-Beste jarduera batzuk	- Inoiz ez - Behin edo gehiagotan
	Irakurketa	- Liburu bakar bat ere ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Hitzaldiak	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Museoak	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
	Arte-galeriak	- Inoiz ez - Maiztasun txikia (1-3) - Maiztasun ertaina (4-6) - Maiztasun handia (7+)
Aktiboa	Asoziazionismoa	- Elkarte bakar batean ere ez - Batean - Batean baino gehiagotan
	Praktika artistiko amateurak (intentsitatea)	- Bat ere ez - Intentsitate txikia - Intentsitate ertaina - Intentsitate handia
Digitala	Praktika digital errezeptibo klasikoak	- Bat ere ez - Mota bat - Bi mota - Hiru mota edo gehiago
	Praktika digital errezeptibo "natiboak"	- Bat ere ez - Mota bat - Bi mota - Hiru mota edo gehiago
	Praktika digital aktiboak	- Bat ere ez - Mota bat - Bi mota - Hiru mota edo gehiago

Iturria: Geuk egina

Berez, determinatzaile soziologiko batzuen eragina identifikatu badaiteke ere, profil demografiko eta sozial desberdinek, nahiz eta ezaugarri horiek elkarren artean partekatu, publiko-segmentu desberdinetan kokatzeko duten erraztasunaren erakusgarria da txosten hau.

Egindako ariketa eta bere balioa hobeto ulertzen laguntzen duen bigarren egitate bat zera da, algoritmo bera dela patroiak atzematen eta proposatzen dituen, taldeen sorkuntzaren aurreko inolako ideia edo irizpiderik inposatzen ez delarik⁴.

1. taulan ikusten denez, ariketak bereizketa egiten du praktiken intentsitatearen eta praktika-motaren artean, eta horrek jarduera artistiko eta kulturalak egiteko (edo ez egiteko) moduen aniztasuna hobeto atzematea ahalbidetzen du.

Behin segmentuak edo publiko kulturalako taldeak aurkeztu ondoren, soziologikoki ezaugarritzen dira aldagai-bateria batekin. Aldagai horiek lotuta daude honako hauekin: heredatutako kapital kulturalaren

⁴ | Hori horrela izanik ere, talde kopuruaren hautaketa eta haien interpretazioa beti da zentzu teorikoa duten eta maila informatiboan esanguratsuak diren taldeak eratzera bideratutako ariketa kontzeptual bat.

dimentsioa, soziodemografia, sozioekonomia, psikologia eta beste zirkunstantzia eta bizi-lehentasanak (kulturaz eta obligazioez bestelako zaletasunak). Kasu honetan honako hauek erabiltzen dira:

— **Kultur kapital heredatua**

- Parte-hartze kultural aktiboko haurtzaroa
- Parte-hartze kultural errezeptiboko haurtzaroa
- Gurasoaren ikasketa-maila

— **Profil soziodemografikoa**

- Adin-tartea
- Bizilekuko hiriaren tamaina
- Sexua
- Adin txikiko seme-alaben kopurua
- Jaiotzako jatorria

— **Kondizio sozioekonomikoa**

- Ikasketa-maila
- Hilabete bukaerara iristeko zailtasuna
- Etxeko hileko diru-sarrerak
- Prestazioen onuradunak

— **Dimentsio soziologikoa (hesiak, balioak eta motibazioak)**

- Arte/kulturaren balio pertsonala
- Hesi psikologikoa
- Ezagutza-hesia

- Informazio kulturalaren maila
- Inguruan dagoen eskaintzaren hesia
- Hesi ekonomikoa/prezioarena
- Parte-hartze kulturalarekiko motibazio-mota

— **Beste zaletasun eta obligazio batzuk**

- Beste zaletasun batzuk
 - Kirola eta jarduera fisikoa egitea
 - Denbora-pasa gisa sukaldatzea
 - Kirola ikustea edo kirol-ekitalditara joatea
 - Paseatzea eta/edo erosketak egitea
 - Taberna eta jatetxetan denbora ematea
 - Streamerrak/Youtuberrak/Bideojokoak
 - Interneten eta sare sozialetan nabigatzea
 - Telebista ikustea
- Betebeharrak
 - Lan-denborari emandako dedikazioa
 - Ikasketa-denborari emandako dedikazioa
 - Etxeko denborari/zainketei emandako dedikazioa
 - Boluntariotza-denborari emandako dedikazioa

Taldeen karakterizazioan, gauza esanguratsua suertatzen da taldeekin modu linealean erlazionatzen ez diren faktoreen behaketa (**6 Profil soziologikoa** apartatuan sakondu daiteke honetan). Gauza naturala da, eta zera egiaztatzen du, taldeek ez dutela gehiago edo gutxiago parte hartzen (horrek aldagai baten eta bestearen artean erlazio lineal bat ekarriko bailuke), baizik eta modu desberdinean parte hartzen dutela (ez da kopuru edo bolumen kontu bat bakarrik, mota edo forma kontu bat baizik).


Egitate honen behaketak argudioak ematen dizkio parte-hartze kulturala modu tradizionala eta tipikoki instituzionala baino modu zabalagoan ikusteko premiari: antzerkita, zinemara eta kontzertuetara joatea edo irakurtzea bezalako parte-hartze errezeptibo presentzialeko jarduera tipikoetatik haratago.

Emaitzen aurkezpenerako bi aldagaiko neurriak erabili baziren ere (batezbestekoarekiko talde bakoitzaren diferentziak, 5. apartatua **Profil soziologikoa**), behatutakoaren ulermen globalerako erregresio logistiko multinominala bezalako aldagai anitzeko teknika esplikatiiboak ere aplikatu dira, (hemen kontsulta daitezkeenak: **eranskin metodologikoa**).

EAEko publikoak: ikuspegi orokorra

3. Parte-hartze taldeak eta mailak

1. grafikoa. Parte-hartze kulturalako patroien araberako banaketa (Parte-hartze maila globalaren araberako zazpi profilen laburpena)



Iturria: Geuk egin EAEko Parte-hartze Kulturalako 2024ko Inkestan landutako emaitzekin

Euskadiko 15 urtetik gorako populazioaren osotasuna parte-hartze kulturalako 7 patroien edo taldetan bana daiteke, parte-hartze kulturalaren mailari eta moduari begiratuta. Datuek praktika jakin bakoitzaren maila bereizteko aukera ematen badute ere, begirada orokor honetan (1. grafikoa) batezbesteko global bat eskaintzen da, “kulturan parte hartzeko probabilitate” gisa ezagutzen dena. Bi begiraden konbinazioak etiketa kualitatiboko karakterizazioa ahalbidetzen du, eta aldi berean patroien ordenazioa, parte-hartze handienekotik hasi eta jarduera kultural orotik ia kanpo daudenetara iritsi arte.

Begirada global honetatik abiatuz, bi datuak konbinatuta, lehenik eta behin adierazi beharra dago heterogenotasun handia dagoela. Biztanleria askotarikoa da parte-hartze kulturalari dagokionez eta, xehetasunak aztertzen dituen apartatuan

ikusiko den bezala, ezinezkoa da horri buruzko baieztapen kategorikoak egitea.

Horrela, lehenik talde txiki bat nabarmentzen da, bai mutur aktiboan eta baita mutur inaktiboan ere. Erdigunean bada grisen multzo zabal bat, non aurrerago ikusiko denez, dena ez den parte-hartze maila, baizik eta baita modua ere.

Bitarteko patroi hauetan erdiguneko talde bat nabarmentzen da, bolumenez handiena dena eta parte-hartze ertainekoa. Gainerakoaren artean, banaketak eskuinerantz jotzen du oinarrian maila digital errezeptiboan parte hartzen duen talde handi zabal bat dagoelako.

Horrela, hiru talde aktiboenek % 31,52 batzen dute eta aktibitate gutxienekoek % 42,42. Kontuan hartu beharra dago ez-publiko gisa etiketatutako taldeak jarduera desberdinetarako probabilitate txiki bat erakusten duela, baina nahiko baxuak eta puntualak dira eta zentzuzkoa da etiketa erabiltzea, nahiz eta oso kategorikoa dirudien.

Xeheki: nola parte hartzen da eta nortzuk dira?

4. Nola parte hartzen den: parte-hartze kulturalako patroiak

Apartatu honetan parte-hartze kulturalako patroi edo talde bakoitzaren deskribapenean sakontzen dugu, zer praktikek ezaugarritzen dituzten eta praktika horiek zer intentsitatekin egiten dituzten.

	Parte-hartze errezeptiboa	Parte-hartze aktiboa	Parte-hartze digitala
Omniborismo bizi-bizia Oso parte-hartze altua kultur-jarduera guztietan, bai errezeptiboetan eta baita aktiboetan ere.	• Antzerki, kontzertu eta zinemarako asistentzia oso nabarmena. • Liburutegien maiztasun handiko erabilera eta irakurketa oso bizia. • Dantza, museo eta arte-galerietarako maiztasun handiko asistentzia.	• Asoziazionismoan eta praktika artistiko amateurretan inplikazio handia.	• Oso aktiboak praktika digital errezeptiboetan eta aktiboetan.
Omniborismo lasaia Parte-hartze kultural oso handia, baina bizi-biziek daukatena baino maila baxuagokoa.	• Irakurketa-maiztasun oso handia eta liburutegien erabilera liburuen mailegutik haratago (asistentzia eta jarduerak). • Intentsitate ertaineko asistentzia antzerkira, zinemara, kontzertuetara eta museotara. • Intentsitate baxua dantzan, hitzaldietan eta arte-galerietan.	• Asoziazionismo eta praktika artistiko amateur garrantzitsuak, baina ez nabarmenak.	• Praktika digitalen gauzatze handia, batez ere formatu errezeptiboan.
Aktiboak eta konektatuak Parte-hartze ertaina eta orekatua presentzialaren, analogikoaren eta digitalaren artean.	• Irakurketa-intentsitate aldakorra taldearen barruan. • Maiztasun puntuala antzerkian eta museoetan.	• Praktika artistiko amateurrek egiteko eta asoziazionismorako joera nabarmena.	• Guztiz digitalak (errezeptibotik aktibora eta tradizionalenetik modernoenera).
Kontsumo klasiko ertaina Presentzian eta ohikoenean zentratutako noizean behingo parte-hartzea.	• Kontzertu, zinema eta antzerkian oinarritutako kontsumo presentziala. • Museoetarako bisitaldi puntualak nabarmentzen dira. • Intentsitate aldakorreko irakurleak.	• Praktika artistiko eta jarduera digital aktiboen maila baxuak baina badaudenak. • Asoziazionismo praktikoki nulua.	• Errezeptiboetan bakarrik zabalduetako praktika digitalak.
Noizean behingo parte-hartze analogikoa Intentsitate baxuko eta analogikoan zentratutako parte-hartze kulturala.	• Intentsitate baxuko eta analogikoan/presentzian zentratutako parte-hartze kulturala. • Oso noizean behingo irakurketa.	• Praktika artistiko amateurretan eta jarduera asoziatiboan inplikazio urria.	• Praktika digital anekdotikoak.
Digital errezeptiboa bakarrik Kontsumo errezeptiboa egiteko bitarteko digitalen erabilera handiko maiztasuna.	• Jarduera presentzialetan oso parte-hartze kultural urria, zineman, kontzertuetan eta neurri txikiagoan antzerkian zentratua. • Oso intentsitate txikiko irakurketa.	• Jarduera asoziatibo nulua.	• Kontsumo digital errezeptibo oso handia. • Formatu digital aktiboetan jarduera urria.
Ez-publikoa Edozein parte-hartze modutan jarduera minimoa edo nulua.	• Antzerki, kontzertu, dantza edo zinemarako asistentzia oso-oso urria. • Termino erlatibotan (oso kontsumo urriko testuingurua), irakurketaren probabilitatea nabarmentzen da.	• Praktika artistiko amateurren bat kasu anekdotikoetan. • Asoziazionismo nulua.	• Neurri bateko kontsumo digitala, baina errezeptiboa eta sustrai analogikokoa (ikuskitzen edo erakusketak online ikustea, online irakurtzea...). • Praktika digital aktibo nulua.

4.1. Omniborismo bizi-bizia

Oso parte-hartze altua kultur-jarduera guztietan, bai errezeptiboetan eta baita aktiboetan ere.	Antzerki, kontzertu eta zinemarako asistentzia oso nabarmena.	Liburutegien maiztasun handiko erabilera eta irakurketa oso bizia.
Dantza, museo eta arte-galerietarako maiztasun handiko asistentzia.	Asoziazionismoan eta praktika artistiko amateurretan inplikazio handia.	Oso aktiboak praktika digital errezeptiboetan eta aktiboetan.

Kulturan parte hartzeko probabilitate osoaren gradazio batean bereizitako lider gisa kokatzen dira. Guztizkoaren % 8,64ko zati txiki oso mobilizatu bat osatzen dute. Hileko batezbesteko gastua kulturean 113,95 € da.

Praktikoki denetik egiten dute eta intentsitate handi eta erregularrekin. Lideratzen ez dituzten parte-hartze mota bakarrak digitalak dira, baina taularen goiko aldean kokatzen dira halaber.

Edozein modutan, intentsitate handienarekin egiten dituzten praktikak biztanleria-mailan zabalduenak dira: kontzertuak eta zinema, lehen lekuan, eta praktika digital errezeptiboak, bigarren lekuan.

Demarkazio bereziki garrantzitsu gisa nabarmentzen dira: irakurketa bizi-bizia (eta, modu lotuan, liburutegira joatea), museoak bisitatzeko intentsitate ertaina eta handia, dantzara eta arte-galerietara bertaratzea (nahiz eta intentsitate baxuarekin, praktika

hauek gehien egiten dituztenak dira, alde handiarekin), asoziazionismoaren zama askoz ere handiagoa eta praktika artistiko amateurrek egiteko intentsitate handia.

4.2. Omniborismo lasaia

Parte-hartze kultural oso handia, baina bizi-biziek daukatena baino maila baxuagokoa.	Irakurketa-maiztasun oso handia eta liburutegien erabilera liburuen mailegutik haratago (asistentzia eta jarduerak).	Intentsitate ertaineko asistentzia antzerkira, zinemara, kontzertuetara eta museotara.
Intentsitate baxua dantzan, hitzaldietan eta arte-galerietan.	Praktika digitalen gauzatze handia, batez ere formatu errezeptiboan.	Asoziazionismo eta praktika artistiko amateur garrantzitsuak, baina ez nabarmenak.

Kulturan parte hartzeko probabilitate handieneko bigarren taldea dira eta, kulturan hileko 75,46 €-ko gastuarekin, % 8,28 biltzen dute. Parte-hartzea oso zabalduta dago eta askotarikoa da, baina talde liderrarena baino puntu bat beherago dago intentsitatean. Omniboro bizi-bizien taldean praktikak intentsitate ertain-altu batekin egiten diren bitartean, kasu honetan intentsitateak ertain-baxua izatera jotzen du kasu gehienetan (irakurketa, liburutegira joatea eta praktika digital errezeptiboak salbu).

Gainera, jarduera batzuek -gutxi- atzematen hasten dira, non jarduerak ez egiteko probabilitatea jarduerak egitekoa baino handiagoa baita: dantza, hitzaldietara bertaratzea, arte-galeriak eta praktika digital aktiboak.

Horrela, irakurketa intentsitate handia dago, liburutegira joatekoa eta praktika digital errezeptiboetakoa, eta intentsitate ertaina antzerkira, kontzertuetara, zinemara eta museoetara bertaratzean. Liburutegietara

joatea zeragatik nabarmentzen da, liburuen maileguan bakarrik ez zentratzeagatik baizik eta beste jarduera batzuetara hurbiltzeagatik (praktika hau nabarmentzen den talde bakarra da).

Praktika amateur artistikoak nahiko zabalduta daude, baina ez dira talde osoarekiko zeharkakoak, asoziazionismoa den bezala, esanguratsua delarik batezbestekoarekin alderatuta.

4.3. Aktiboak eta konektatuak

Parte-hartze ertaina eta orekatua presentzialaren, analogikoaren eta digitalaren artean.	Gutziz digitalak (errezeptibotik digitalera eta tradizionalenetik modernoenera).	Praktika artistiko amateurrek egiteko eta asoziazionismoarako joera nabarmena.
Irakurketa intentsitate aldakorra taldearen barruan.	Presentzialean, interes handia zinema eta kontzertuengatik.	Maiztasun puntuala antzerkian eta museoetan.

Hirugarren talde aktiboena dira, nahiz eta aktiboetan aktibitate urriena duena izan. Gutzizkoaren % 14,6 osatzen dute. Horrela beraz, aurretik dituzten parte hartzeko probabilitate handieneko taldeek baino pisu garrantzitsuagoa dute.

Kulturan duten hileko gastua 76,46 € da, ia aurreko taldearen kasuan bezala (“Omniborismo lasaia”) eta ondorengoan bezala (“Kontsumitzaile ertaina”). “Kontsumitzaile ertainaren” patroiaren

aurretik daude eta haiekiko desberdintasuna zera da, praktika artistiko amateurrek egiteko eta elkartzeko probabilitate handiagoa dutela eta guztiz digitalak izatea. Batez beste, dimentsio digitalari dagokionez, nabarmentzekoa da beraiek direla talde guztietan konektatuenak daudenak.

Parte-hartze errezeptiboaren planoan, parte-hartze zabalagoa kontzertuetarako eta zinemarako asistentzian gertatzen da. Taldearen barruan intentsitate aldakorra

dagoelarik, irakurketan dihardute orokorrean, eta museoak bisitatzen dituzte noizean behin.

4.4. Kontsumo klasiko ertaina

Noizean behingo parte-hartzea presentzian eta ohikoenean zentratua (kontzertuak, zinema, antzerkia).	Museotarako noizean behingo bisitak nabarmen dira.	Praktika artistikoko eta jardura digital aktiboetako maila baxuak baina egon badaudenak.
Asoziazionismo praktikoki nulua.	Irakurketa intentsitate aldakorra talde barnean.	Errezeptiboetan bakarrik zabalduetako praktika digitalak.

Erdiguneko taldea da eta bi zentzutan da erdigunekoa: talde nagusia da (% 26,06, nahiz eta “Digital errezeptibo” gisa etiketatutako patroiaren baliokidea den pisua elkarbanatzen duen) eta erdiko puntu batean kokatzen da kultura parte hartzeko probabilitate orokorrari dagokionez.

Hilean kultura daukaten gastua 77,41 € da. Omniborismo bizi-biziaren eta Aktibo eta konektatuen patroiaren gastu parekidea da.

Aurretik nabarmendu den bezala, Aktibo eta konektatuen patroiaren aldea elkarrekin edo jardura artistiko amateurretan, edo digital aktiboan baino gradu bat txikiagoa da partaidetzan.

Hala analogikoan nola digitalean parte-hartze errezeptiboa lehenesten dute, eta jardura zabaldutakoan parte hartzen dute. Horrela, antzerkia, kontzertuetara, zinemara eta museoetara joatea dute ezaugarri

(modu nabarmen samarrean nahiz eta bisitaldi puntualean zentratua), intentsitate aldakorreko irakurleak direlako orokorrean eta praktika digital errezeptiboak dituztelako.

4.5. Noizean behingo parte-hartze analogikoa

Intentsitate baxuko eta analogikoan zentratutako parte-hartze kulturala.	Oso noizean behingo irakurketa.
Praktika digital anekdotikoak.	Praktika artistiko amateurretan eta jarduera asoziatiboan inplikazio urria.

Kasu honetan kultura ez parte hartzeak parte hartzeak baino probabilitate handiagoa daukan talde batera igarotzen gara, parte hartzeko batezbesteko probabilitatea % 39an kokatzen bada ere. Talde txikia da, % 6,72ko pisuarekin. Hileko gastua kultura 56,45 € da, aurretik daukan taldea baino askoz ere baxuagoa.

Patroi hau hobeto ulertzeko interesgarria da nabarmentzea hurrengo taldetik bereizten dela digitalaren aurrean daukan posizionamenduagatik. Biak dira

parte-hartze mugatuko taldeak, baina kasu honetan errezeptibo analogiko klasikoranzkoa da joera, hurrengoak digital errezeptibo soilak diren bitartean.

Hau da, beraien lehentasuna zera da, intentsitate baxuarekin bada ere, antzerkia, kontzertuak, zinema, museoak eta, intentsitate askoz ere aldakorragoarekin, irakurketa.

4.6. Digital errezeptiboa bakarrik

Kontsumo errezeptiboa egiteko bitarteko digitalen erabilera handiko maiztasuna.	Parte-hartze oso baxua jarduera presentzialetan, zineman, kontzertuetan eta neurri txikiagoan antzerkian zentratua.	Oso intentsitate baxuko irakurketa.
Jarduera asoziatibo nulua.	Jarduera urria formatu digital aktiboetan.	

Parte-hartze kultureko beste patroi handia dira (% 25,13) eta parte-hartze moduekiko batezbesteko begirada batean parte hartzeko oso probabilitate baxuan kokatzen dira.

Bere parte-hartzea kontsumo digital errezeptibo batera mugatzen da oinarrian, eta puntualki bakarrik egiten dituzte parte-hartze fisikoko jarduera batzuk, hala nola kontzertuetara edo zinemara joatea (eta antzerkira neurri txikiagoan). Dantza, hitzaldiak, museoak edo arte-galeriak oso jarduera marjinalak dira.

Aurrekoa hala izanik ere, probableagoa da irakurleak izatea ez izatea baino, nahiz eta beraien irakurketa-intentsitatea baxua izan.

Hilean kulturen daukaten gastua 40,53 € da. Gogoratu beharra dago, atzetik, ez-publikoa daukatela, hilean 14,95 €-ko gastua egiten dutelarik.

4.7. Ez-publikoa

Edozein parte-hartze modutan jarduera minimoa edo nulua.	Antzerki, dantza edo zinemarako asistentzia oso-oso urria.	Termino erlatibotan (kontsumo kultural oso baxuko testuingurua), irakurketaren probabilitatea nabarmentzen da.
Kontzertuak eta praktika artistiko amateurren bat kasu anekdotikoetan.	Neurri bateko kontsumo digitala, baina errezeptiboa eta erro analogikokoa (online irakurtzea, ikuskizunak edo erakusketak online ikustea...).	Asoziazionismo nulua eta praktika digital aktiboak.

Ez-publikoa populazioaren % 10,57ko talde bat da, ia-ia parte-hartze kulturaletik kanpo dagoena, izugarri desmobilizatua. Kasu honetan, batezbesteko gastua 14,95 € da kulturen hilean.

Parte-hartze kulturalari dagokionez ez dute ezer egiten edo oso gutxi. Irakurketa bakarrik nabarmentzen da, baina termino erlatibotan bakarrik: parte hartzeko probabilitatea batez beste % 9koa bada, irakurketan % 40ra iristen da. Horrek zera ahalbidetzen du, talde guztietako praktikarik zeharkakoena bezala aldarrikatzea irakurketa.

Modu are erlatiboagoan nabarmentzen diren beste praktikak -eta beti intentsitate baxuarekin- praktika digital errezeptiboak (bereziki “klasikotzat” har daitezkeenak “natiboen” aurrean, gauzatzeko % 20ko probabilitatearekin), kontzertuetara joatea (% 19ko probabilitatea) eta praktika artistiko amateurrek dira (% 17ko probabilitatea). Edozein kasutan ere, oso probabilitate baxukoak dira, baina pixka bat nabarmentzen diren jarduera gutxietakoak dira, irakurketarekin batera.

Asoziazionismoa edo praktika digital aktiboak nuluak dira (praktikatzeko % 3ko eta % 1eko probabilitateak, hurrenez hurren).

5. Nortzuk dira: profil soziologikoa

	Omniborismo bizi-bizia	Omniborismo lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumo klasiko ertaina	Noizean behingo parte-hartze analogikoa	Digital errezeptiboa	Ez-publikoa
Kapital kultural heredatua	- Hautzaroan jarduera kultural presentzial aktiboak eta errezeptiboak gauzatzearen oso maila altua. - Gurasoen hezkuntza-maila handia.	Esperientzia errezeptibo kulturalen eragin positiboa eta, bereziki, esperientzia aktiboena, hautzaroan.	- Beren gurasoen batezbesteko hezkuntza-maila talde guztietako handiena da. - Praktika kulturalako hautzaroa, praktika bereziki aktiboekin, modu nabarmenagoan.	Heredatutako kapital kulturalarekiko bitarteko posizio batean kokatzen dira.	- Batezbestekotik pixka bat behera hautzaroko jarduera kulturalak egiterakoan. - Behe mailako hezkuntza-tituludun gurasoak.	Sozializazio kultural baxua hautzaroan.	Hautzaroko sozializazio kulturalako indizerik txikiena daukate.
Profil soziodemografikoa	- Balaunaldiarteko talde bat da baina gaztarorako joerarekin. - Batez ere hiri-buruetan eta hiri handietan bizi dira.	- Belaunaldi bateko taldea baina gaztarorako joerarekin. - Aurreko eta hurrengo taldetik bereizten dituen zera da, proportzio handiagoan seme-alabekin bizi izatea.	- Guztietan gazteena den taldea. - Euskaldunen proportzio handiagoa. - Seme-alaben presentzia txikia.	35etik 54 urte arteko helduen presentziak markatutako taldea. - Seme-alabekin bizi dira batezbestekoa baino proportzio handiagoan. - Hiriburuak eta hiri handiak. - Gizonen kontzentrazio pixka bat handiagoa.	55 urtetik gorakoen presentzia handia, bereziki 64tik gorakoena. - Emakumeen kontzentrazio handiagoa.	Publiko ez hain aktiboen artean, nabarmen gazteagoak dira.	64 urteak gainditzen dituzten pertsonen pisu handieneko taldea. - Emakumeen kontzentrazio handiagoa.

	Omniborismo bizi-bizia	Omniborismo lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumo klasiko ertaina	Noizean behingo parte-hartze analogikoa	Digital errezeptiboa	Ez-publikoa
Kondizio sozioekonomikoa	• Goi-mailako hezkuntza-titulazioak dituzte, unibertsitate-tituludunen kontzentrazio handia. • Diru-sarrerren maila ertaina.	• Unibertsitate-tituluen kontzentrazio handia, aurreko kasuan bezala.	• Hilabete bukaerara iristeko zailtasun nabarmen samarrak, baina "Ez publikoa" eta "Digital errezeptiboa bakarrik" taldeak baina gutxiago. • Batezbestekotik beherako diru-sarrerak. • Hezkuntza-maila altua, nahiz eta ez izan omniboroak bezain handia.	• Beste taldeekin alderatuta, zailtasun ekonomiko txikiak dauzkate. • Batezbesteko hezkuntza-maila ona daukate, gehienak unibertsitariak izanik.	• Hezkuntza-titulazio oso zeharkakoa, nahiz eta bigarren hezkuntzako kontzentrazioarekin. • Zailtasun ekonomiko txikiak, batezbestekoaren pareko diru-sarrerekin.	• Lanbide-heziketaren pisu garrantzitsua, unibertsitate-maila izanik atzetik. • Zailtasun ekonomiko markatuagoak, nahiz eta ez diren diru-sarrera txikiak dituztenak.	• Pertsonen kontzentrazioa talde hauetan: ikasketarik gabeak, edo derrigorrezko lehen eta bigarren mailako ikasketak. • Zailtasun ekonomiko markatuak, lagin osoko diru-sarrerarik baxuenekin batez beste.
Dimentsio psikologikoa: Hesiak, balioak eta motibazioak	• Kulturaren balio altua maila pertsonalean eta sozialean. • Premia kultural eta sinbolikoak sozialak eta emozionalak baino lehen. • Jarduera kulturalera oso lotuta dagoen identitatea, hesi psikologikoak eta ezagutzakoak diluituagoak izanik. • Gehiago parte hartuko luke bere inguruan eskaintza kultural handiagoa balego.	• Artea eta kultura garrantzitsuak dira bere ase-betetasunerako edo errealizazio pertsonalerako. • Artea eta jarduerak kulturalak suertatzen zaizkie. • Jarduera kulturalera oso lotutako identitatea, hesi psikologiko eta ezagutzako hesi baxuekin. • Gehiago parte hartuko luke bere inguruan eskaintza kultural handiagoa balego.	• Kulturaren balio pertsonala batezbestekotik pixka bat gorakoa. • Hesi psikologikoa eta ezagutzakoa indargabetua. • Askotan adierazten du joateko lagunak izango balitu gehiagotan joango litzatekeela.	• Karakterizazio psikologikoko itemetan bitarteko posizio batean kokatzen da.	• Kulturaren balioa maila sozialean eta kulturean batezbestekoan. • Informazio-maila kulturala maila onerako joerarekin. • Hesi psikologikoak eta ezagutza-hesiak batezbestekoan.	• Artea eta kultura beraiek bezalako jendearentzat ez direla sentitzen dute. • Informazio kultural urria dute.	• Ezagutza-hesia eta hesi psikologikoa markatuagoak. • Ez lukete gehiago parte hartuko hurbilean eskaintza zabalagoa balego. • Prezioa ez da arazoa.


	Omniborismo bizi-bizia	Omniborismo lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumo klasiko ertaina	Noizean behingo parte-hartze analogikoa	Digital errezeptiboa	Ez-publikoa
Beste zaletasun eta betebeharrak	Kirol-praktikaren, tabernen eta online telesailen aldeko zaletasun hedatua.	- Kirolaren praktikarekiko zaletasun zabala halaber. - Paseatzeko, tabernetarako eta online telesailarako zaletasun nabarmena. - Etxeko lanerako dedikazio handiagoa (seme-alabak bizikide dituzten pertsonen proportzioa handiagoa da) pertsona Omniboro bizi-biziena eta Aktibo eta konektatuen taldekoena baino.	- Beste zaletasun gehiagoko eta intentsitate handiagoko taldea. - Denbora libre gutxiagoko taldea. - Sareen erabilerarekiko eta online telesailarekiko zaletasun oso zabaldua. - Kirolaren praktikarekiko, tabernetara joateko eta streaming eta bideo-jokoekiko zaletasun nabarmena. - Kontsumo klasikoko pertsonen taldearekin batera, lan produktiboko batezbestekorik handiena dute.	- Kirolaren praktikarekiko zaletasun handia, bai eta online telesailarekiko eta sareekikoa, tabernetara joateko eta paseatzekoa. - Lan produktiborako dedikazio-batezbesteko handiagoa.	- Batezbestekoa baino denbora libre gehiagoko taldea (taldearen batezbesteko adina dela eta, lan produktiboak oso denbora gutxi kentzen die batez beste, nahiz eta gaineratik egon etxeko lanetan). - Paseatzeko eta telebista ikusteko zaletasuna batezbestekotik gora.	Zaletasun nabarmenena sare sozialak dira, telesailak eta paseatzea.	- Denbora libre gehien duen taldea (batezbesteko adina kontuan hartuz, lanak oso denbora gutxi hartzen die, nahiz eta etxeko lanean batezbestekotik gora egon). - Paseatzen eta telebista ikusten batezbestekotik gora daude. - Ez dute sare sozialik erabiltzen ez eta bideo-jokorik ere, eta ez dute denbora ematen tabernetan.

5.1. Kapital kultural heredatua

Taldeen eta aldagaien arteko erlazio ia lineala, nahiz eta hereditutako kapital kultural handiena Aktiboak eta konektatuak taldekoa izan, gurasoaren ikasketa-maila kontuan hartzen bada (neurri handiagoan guraso femeninoak ordezkatzan dituen aldagaia hautatuz).

Hautzarroan praktikak egin izana taldeen arteko bereizgarri handia da, gutxiagotik gehiagorako oso inpaktu linealarekin. Gurasoaren ikasketa-mailak (emakumeak dira gehienbat) bi ezaugarri erakusten ditu: Aktiboak eta konektatuak taldearen pisu handia eta aldameneko taldeena baino pisu erlatiboki handiagoa Bakarrik digital errezeptiboa segmentuko pertsonen kasuan. Gogoratu beharra dago azken hau zela talde inaktiboen artean gazteena.

2 grafikoa. Taldeen karakterizazioa hereditutako kapitalaren arabera. Batezbestekoarekiko aldeak. %.



Iturria: Geuk egina EAEko Parte-hartze Kultureko 2024ko Inkestan landutako emaitzekin

5.2. Profil soziodemografikoa


Profil soziodemografikoan ikusten da batez ere aldagai askok ez dutela erlazio linealik publikoen segmentazioarekin. Adina da gehien hurbiltzen dena, baina ez da guztiz lineala. Adina da, alderik handiena eragiten duena taldeen artean. Berezi gi gazte gisa atzematen da Aktibo eta konektatuen taldea, portaera propioa duen profil gazte bat eratzen dutelarik. Nabarmentzekoa da, halaber, Bakarrik digital errezeptiboa taldea, aktibitate gutxienekoen artean, gazteena dela. Aldian behingo parte-hartze analogikoko taldeak eta ez-publikoa batez ere jende heldua da.

Hiri handi eta hiriburuetan bizitzea, sexua, jatorria, edo seme-alabekin bizitzea, talde batzuen kasuan bakarrik da esanguratsua; eta kasu hauetan erlazio lineala oraindik gutxiago lineala da, eta kategoria jakin batzuk bakarrik lotzen dira talde jakin batzuekin: hiriburuetan eta hiri handietan bizi diren pertsonen proportzio pixka bat handiagoa omniboro

bizi-bizien kasuan; Omniborismo lasaiko taldearen artean seme-alaba bizikideen presentzia esanguratsuagoa; emakumeak pixka bat gehiago adin handienekoen taldean (aktibitate gutxienekoekin bat

datozelarik); Bakarrik digital errezeptiboko taldean nabarmenagoa jatorriz atzerrian jaiotakoetan.

3 grafikoa. Beren profil demografikoagatik karakterizazioa. Batezbestekoarekiko aldeak. %.



Iturria: Geuk egina EAEko Parte-hartze Kultureko 2024ko Inkestan landutako emaitzekin

5.3. Kondizio sozioekonomikoa


Hezkuntza-tituluak faktore bereizgarri argi bat dira eta erlazio lineala daukate taldeekiko. Hori hala izanik ere, ia ez dago alderik talde aktiboenen eta bitarteko taldearen artean (Kontsumo klasiko ertaina). Aktibitate gutxieneko taldeekiko harreman-aldaketa bat dago. Bakarrik digital errezeptiboaren kasua nabarmentzen da, izan ere alboko taldeek baino gazte proportzio handiagoa duena baita; baina hala eta guztiz ere, hezkuntza-maila batezbestekoa baino txikiagoa da.

Hilabete bukaerara iristeko zailtasun ekonomikoak badu nolabaiteko harreman lineala, baina ikasketen kasuan bezala, aktibitate gutxieneko taldeetan joera aldaketa batekin. Edozein modutan ere, Aktibo eta konektatuen taldean zailtasun handiago bat nabari da alboko taldeekiko: gogoratu beharra dago gazteen proportzioa handiagoa dela hemen. Prestazioen onuradunak izateak adin nagusiko jendearen taldeak identifikatzen

ditu bereziki, guztiekin erlazio linealik ez daukalarik. Izan ere, gutxieneko pisua Aktiboak eta konektatuak taldean dago, lagin osoko gazteena. Diru-sarrerekin,

ikus daiteke ez dagoela erlazio linealik eta erreplikatzeko ari dela beste aldagai batzuen eragina, hala nola adina edo bizi-zikloa.

4 grafikoa. Taldeen karakterizazioa beren egoera ekonomikoagatik eta hezkuntza-mailagatik. Batezbestekoarekiko aldeak. %.



5.4. Dimentsio psikologikoa: hesiak, balioak eta motibazioak


Dimentsio psikologikoko faktore bereizgarri garrantzitsuenak honako hauek dira: artearekiko distantzia psikologikoa, arteaz gozatu ahal izateko ezagutza falta, artearen eta kulturaren balioa asebetetasun pertsonaleko iturri gisa eta informazio kulturalako maila.

Parte-hartze kulturaleranzko motibazioa ere nabarmentzen da (sozial-emozionala edo kultural-sinbolikoa), nahiz eta kasu honetan nolabaiteko linealtasunari eusten zaion, intentsitatea askoz ere txikiagoa da. Horrek berriz ere azaltzen du aldagai esplikatibo mota hau egokiagoa dela publikoen arteko aldeak ulertzeko, nahiz eta faktoreen osotasun osoarekin ehuntzen diren.

Inguruko eskaintzaren hesiak eta prezioak kasu interesgarri bat azaltzen dute, espero denaren aurkako moduan funtzionatzen

baitute: talderik aktiboenak dira adierazten dutenak inguruko eskaintza eta prezioak gehiago kontsumitzeko hesi bat direla.

5 grafikoa. Taldeen karakterizazioa mota psikologikoko aldagai desberdinekiko duten harremanaren arabera. Batezbestekoarekiko aldeak. %.




5.5. Beste zaletasun eta betebeharrak

Kulturaz bestelako zaletasunei dagokienez, kirola egiten edo taberna eta jatetxetan denbora ematea da arruntena kulturalki aktiboenak diren taldetan. Aldiz, paseatzea eta/edo erosketak egitea, sare sozialak, eta telebista ikustea dira, kasu bakoitzean diferentzia batzuekin, inaktiboenak direnen artean jardura ohikoenak.

Adibidez, parte-hartze analogikoko eta digitalekoaren artean oso ohikoa da paseatzea, sare sozialak Bakarrik digital errezeptiboa taldean eta telebista ikustea Ez-publikoan. Hori hala izanik ere, sare sozialak dira bereziki Aktiboen eta konektatuen taldeko zaletasuna, tabernetan eta jatetxeetan emandako denboran nabarmentzen direlarik halaber. Izan ere, orokorrean nolabaiteko dinamika bat ikus daiteke, eta horren arabera, badira beste zaletasun batzuetan ere, modu orokorrean, pertsona aktiboak direnak.


6 grafikoa. Batezbestekoaren gainetik jardura bakoitza egiten duten pertsonen portzentajea, publiko kulturalen taldeen arabera. %.



Betebeharrei dagokienez, eta gai honekin loturik, lan boluntarioa nabarmentzen da, adibidez. Talde aktiboek ordu gehiago dedikatzen dizkiote lan boluntarioari. Aurkitutako publiko kulturalako taldeen erlazio lineal argiena da.

Lan produktiboko denborak (lanekoa) eta erreproduktiboak (etxeko lana eta zaintza-lana) ez dute erlazio linealik erakusten, talde espezifikoekin lotzen delarik. Horrek agerian uzten ditu talde bakoitzaren ezaugarriak, bizi-zikloarekin lotuta. Zentzu honetan, batezbestekotik beherako lan-dedikazioa nabarmentzen da bereziki adin handieneko kasuetan eta ikasketari emandako denbora talde gazteenen artean.

7 grafikoa. Taldeen karakterizazioa betebehar desberdinetan duten dedikazioaren arabera. Batezbestekoarekiko aldeak.



Iturria: Geuk egina EAEko Parte-hartze Kulturalako 2024ko Inkestan landutako emaitzekin

Laburpena eta ondorioa

6. Profil bakoitzaren fitxa

Omniborismo bizi-bizia		Profil kulturala		
Biztanleriaren % 8,64	113,95 € Hileko gastua kulturan	Kultur jarduera guztietan parte-hartze oso handia, bai errezeptiboetan bai aktiboetan.	Antzerki, kontzertu eta zinemarako asistentzia oso nabarmena.	Liburutegien maiztasun handiko erabilera eta irakurketa oso bizia.
Kultura-zale handien prototipoa		Dantza, museo eta arte-galerietarako maiztasun handiko asistentzia.	Asoziazionismoan eta praktika artistiko amateurretan inplikazio handia.	Oso aktiboak praktika digital errezeptiboetan eta aktiboetan.
Asko egiten dute eta askotarikoa		Profil soziologikoa		
		Hezkuntza-titulazio altuak dituzte, unibertsitate-tituludunen kontzentrazio handia. Diru-sarrera ertainen maila.	Kultur praktika handia haurtzaroan. Gurasoen hezkuntza-maila handia.	Balaunaldiarteko talde bat da baina gaztarorako joerarekin. Hiriburuetan eta hiri handietan bizi dira bereziki.
		Kulturak motibatu egiten ditu, axola zaie eta identifikatu egiten ditu. Are gehiago parte hartuko lukete eskaintza zabalagoa balego.	Kirol-praktikaren, tabernen eta online telesailen aldeko zaletasun hedatua.	



Profil kulturala

Parte-hartze kultural oso handia, baina omniboro bizi-biziek baino gradu bat beherago.

Intentsitate baxua dantzan, hitzaldietan eta arte-galerietan.

Irakurketa oso handia eta liburutegien erabilera liburuen maileguaz haratagokoa (jardueretara bertaratzea).

Praktika digitalen gauzatze handia, batez ere formatu errezeptiboan.

Intentsitate ertaineko asistentzia antzerkira, zinemara, kontzertuetara eta museotara.

Asoziazionismo eta praktika artistiko amateur garrantzitsuak, baina ez nabarmenak.

Profil soziologikoa

Unibertsitate-tituluen kontzentrazio handia. Diru-sarrera ertainen maila.

Kulturak pertsonalki errealizatzen ditu, naturala suertatzen zaie eta identifikatu egiten ditu. Are gehiago parte hartuko lukete eskaintza zabalagoa balego.

Esperientzia errezeptibo kulturalen eragin positiboa eta, bereziki, esperientzia aktiboena, haurtzaroan.

Kirol-praktikaren, paseatzearen, tabernen eta online telesailen aldeko zaletasun hedatua. Etxeko lanera dedikazio handiagoa.

Balaunaldiarteko talde bat da baina gaztarorako joerarekin. Seme-alabekin bizi dira proportzio handiagoan.



Profil kulturala

Presentzialaren eta analogikoaren eta digitalaren arteko parte-hartze ertaina eta orekatua.	Guztiz digitalak (errezeptibotik aktibora eta tradizionalenetik modernoenera).	Praktika artistiko amateurak egiteko eta asoziazionismorako joera nabarmena.
Irakurketa-intentsitate aldakorra taldearen barruan.	Presentzialean, interes handia zinemagatik eta kontzertuengatik.	Maiztasun puntuala antzerkian eta museoetan.

Profil soziologikoa

Praktika kultural aktiboa haurtzaroan. Gurasoen hezkuntza-maila ertaina.	Zailagoa egiten zaie hilabete bukaerara iristea. Batezbestekotik beherako diru-sarrerak. Hezkuntza-maila altua.	Talde gazteena da denetan. Euskaldunen proportzio handiagoa. Seme-alaben presentzia txikia.
Kulturaren balio pertsonala batezbestekoaren gainetik. Hesi psikologiko eta ezagutzako hesirik gabe. Gehiago parte hartuko lukete joateko lagunik edukiko balute.	Lan produktiboaren batezbesteko altuena dute ozta-ozta. Denbora libre gutxiagoko taldea.	Beste zaletasun gehiagoko eta intentsitate handiagoko taldea. Sareen erabilerarekiko eta online telebista-erabilera oso zabalduta. Kirolaren praktikarekiko, tabernetara joateko eta streaming eta bideo-jokoekiko zaletasun nabarmena.



Profil kulturala

- | | |
|--|---|
| Presentzialean eta ohikoenean zentratutako noizean behingo parte-hartzea (kontzertuak, zinema, antzerkia). | Museoetarako bisitaldi puntualak nabarmentzen dira. |
| Asoziazionismo praktikoki nulua. | Intentsitate aldakorreko irakurleak. |

- | |
|---|
| Praktika artistiko eta jarduera digital aktiboen maila baxuak baina badaudenak. |
| Errezeptiboetan bakarrik zabaldutako praktika digitalak. |

Profil soziologikoa

- | | | |
|---|--|--|
| Bitarteko posizioa heredatutako kapital kulturalari dagokionez. | Batezbesteko hezkuntza-maila ona, unibertsitateen gehiengoarekin. Zailtasun ekonomikorik gabe. | 35etik 54 urte arteko helduen presentziak markatutako taldea. Hiriburuak eta hiri handiak. |
| Seme-alabekin bizi dira batezbestekoa baino proportzio handiagoan. Gizonen kontzentrazio pixka bat handiagoa. | Karakterizazio psikologikoko itemetan bitarteko posizioa. | Kirolaren praktikarekiko zaletasun handia, bai eta online telesailekikoa eta sareekikoa, tabernetara joateko eta paseatzekoa. Lan produktiborako dedikazio-batezbesteko handiagoa. |



Profil kulturala

- Intentsitate baxuko parte-hartzea eta analogikoan zentratua.
- Praktika digital anekdotikoak.
- Oso noizean behingo irakurketa.
- Praktika artistiko amateurretan eta jarduera asoziatiboan inplikazio urria.

Profil soziologikoa

- Kultur praktika txikia haurtzaroan. Gurasoen hezkuntza-maila urria.
- Hezkuntza-titulazio oso zeharkakoa, nahiz eta bigarren hezkuntzako kontzentrazioarekin. Zailtasun ekonomiko txikiak, batezbestekoaren pareko diru-sarrerekin.
- 55 urtetik gorakoen presentzia handia, bereziki 64tik gorakoena. Emakumeen kontzentrazio handiagoa.
- Kulturaren balioa batezbestekoan. Informazio-maila kulturala maila onerako joerarekin. Hesi psikologikoak eta ezagutza-hesiak batezbestekoan.
- Batezbestekoak baino denbora libre gehiago duen taldea (lan produktiboak oso denbora gutxi kentzen die batez beste, nahiz eta etxeko lanean oso goitik dauden).
- Paseatzeko eta telebista ikusteko zaletasuna batezbestekotik gora.




Profil kulturala

Kontsumo errezeptibo bat egiteko bitarteko digitalen erabilera-maiztasun handia.	Jarduera presentzialetan oso parte-hartze kultural urria, zineman, kontzertuetan eta neurri txikiagoan antzerkian zentratua.	Oso intentsitate txikiko irakurketa.
Jarduera asoziatibo nulua.	Formatu digital aktiboetan jarduera urria.	

Profil soziologikoa

Sozializazio kultural baxua haurtzaroan.	Lanbide-heziketaren pisu garrantzitsua, unibertsitate-maila izanik atzetik.	Zailtasun ekonomiko markatuagoak, nahiz eta ez diren diru-sarrera txikiak dituztenak.
Publiko ez hain aktiboen artean, nabarmen gazteagoak dira.	Artea eta kultura beraiek bezalako jendearentzat ez direla sentitzen dute. Informazio kultural urria dute.	Zaletasun nabarmenena sare sozialak dira, telesailak eta paseatzea.



Profil kulturala

Edozein parte-hartze modutan jarduera minimoa edo nulua.

Kontzertuak eta praktika artistiko amateurren bat kasu anekdotikoetan.

Antzerki, dantza edo zinemarako asistentzia oso-oso urria.

Neurri bateko kontsumo digitala, baina errezeptiboa eta erro analogikokoa (online irakurtzea, ikuskizunak edo erakusketak online ikustea...).

Termino erlatibotan (kontsumo kultural oso baxuko testuingurua), irakurketaren probabilitatea nabarmentzen da.

Asoziazionismo eta praktika digital nuluak.

Profil soziologikoa

Hautzaroko sozializazio kulturalako indizerik txikiena daukate.

Ezagutza-hesia eta hesi psikologikoa markatuagoak. Ez lukete gehiago parte hartuko hurbilean eskaintza zabalagoa balego. Prezioa ez da arazoa.

Ikasketarik gabeko pertsonen edo derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzakoak dituzten pertsonen kontzentrazioa. Zailtasun ekonomiko markatuak, diru-sarrera baxuenekin.

Denbora libre gehien duen taldea (batezbesteko adina kontuan hartuz, lanak oso denbora gutxi hartzen die, nahiz eta etxeko lanean batezbestekotik gora egon).

64 urteak gainditzen dituzten pertsonen pisu handieneko taldea. Emakumeen kontzentrazio handiagoa.

Paseatzen eta telebista ikusten batezbestekotik gora daude. Ez dute sare sozialik erabiltzen eta ez dute denborarik ematen tabernetan.

7. Emaitzen interpretazio globala

Parte-hartzea ulertzea mailari eta moduei begiratuta

Parte-hartzea eta politika kulturalak ikuspegi zabal batekin ikusteko garrantzia azpimarratzen jarraitzen dute emaitzek, parte-hartzerako hainbat mota barne hartzen dituen ikuspegiarekin (*grosso modo* parte-hartze aktiboa, errezeptiboa eta digitala).

Egia da intentsitatea eta kalitatea bi gai elkarlotu direla, baina, adibidez, badago talde digital bat bai parte-hartze kultural global oso altu bat duena eta baita beste talde digital bat ere parte-hartze global murrizta duena. Zentzu honetan, parte-hartze digitalak parte-hartze kulturala murriztu egin dezake edo handitu. Noranzko batean edo bestean noiz funtzionatzen duen ulertzeak beste faktore batzuei erreparatzea eskatzen du,

adibidez mota soziologikokoei (sozialak, demografikoak, ekonomikoak, mentalak...). Bi talde hauen artean, adibidez, funtsezkoa da haurtzaroaren sozializazioa, bai eta artearekiko eta kulturarekiko distantzia sinbolikoaren sentimendua ere ("ez dira ni bezalako jendearentzat").

Gertatzen da, halaber, badirela hiru talde hileko gastu kultural praktikoki berdina dutenak, nahiz eta parte-hartze kultureko profil oso desberdina izan, baita intentsitatearen mailari dagozkion hainbat desberdintasun ere. Modu esanguratsuan, jarduera asko egiten dituen parte-hartze patroia bat badela adierazten du, baina gastu kultural eutsi bat erakusten du, talde ez hain aktibo batek muga gutxiagorekin gastatzen duen bitartean. Berriz ere, soziologikoak bezalako beste faktore batzuei begiratuta bakarrik uler daiteke. Kasu honetan, adibidez, Kontsumo klasiko ertaineko taldeak jarduera gutxiago egiten ditu, baina Aktiboak eta konektatuen taldeak gastatzen duen berdina gastatzen du, nahiz eta azken hauek parte-hartze handiagoa izan

batez beste. Funtsezko faktore bat hemen adina da, bai eta bizi-zikloa ere: Kontsumo klasiko ertaineko taldea pertsona helduek osatzen dute, egoera ekonomiko egonkor edo aldekoarekin, Aktiboak eta konektatuak izanik lagineko gazteenak, eta hainbat zailtasun daukate eta batezbestekotik beherako diru-sarrerak dituzte.

Garrantzitsua da, halaber, parte-hartze modu desberdinen gai hau aintzat hartzea, hainbat jarduerari balioa emateko politika kulturaletik. Adibidez, modu interesgarrian, praktika artistiko amateurak, kasu askotan ekipamendu zibikotan garatzen direnak. Balioan jartzeak parte-hartze artistiko eta kulturalaren zati direla onartzea eskatzen du, eta horrek pertsonek beren burua artean eta kulturen eragile aktibo gisa ikustea erraztu dezake, ikusi ditugun hesi psikologiko eta ezagutzakoak hausten lagunduz.

San Mateo efektua parte-hartze kulturalan: desparekotasunen borondatez kanpoko errefortzua

San Mateo efektuak, politika publikoen testuinguruan, fenomeno jakin bat deskribatzen du, hau da, baliabideen banaketa batean hasiera batean hobekien posizionatuta daudenak are hobeto posizionatuak agertzen dira jatorrian desparekotasunak murrizteko pentsatutako neurri bat aplikatu ondoren. Errefortzu-efektu bat da, zeinaren bidez hobekien eta okerren posizionatuen arteko desparekotasunak zabaltzen baitira.

Datuek erakutsi dute badirela bi hesi parte-hartze kulturalaren aurkakoak eta San Mateo efektu bat eragin dezaketenak: hesi ekonomikoa eta geografikoa. Talde aktiboenak dira neurri handiagoan prezioa ikusten dutenak gehiago parte hartzearen aurkako hesi bezala. Modu berean, parte-hartze handiena duten taldeak dira neurri handiagoan erakusten dutenak, beren inguruan eskaintza kulturala balego, are gehiago parte hartuko luketela.

Horrek baldintza bikainak sortzen ditu honetarako: parte-hartze/jarduera baxuko eremu batean prezioak jaisteko edo jarduera kultural handiagoa sustatzeko politika baten aurrean, publiko aktiboenak izan daitezen onura handienak jasotzen dituztenak, eta ez derrigorrez jatorrian neurri horien onuradun bihurtu nahi ziren publikoak.

Bidegurutze hori gainditzeak beste faktore batzuei erreparatzea dakar, hala nola, bereziki, hesi psikologikoei eta ezagutzakoei: beharrezkoa da lehenik interesa eta hurbilketa sustatzea.

Fenomeno hau ez da kultur eremukoa bakarrik, nahiz eta, modu originalean, datuek erakusten duten nola aplikatzen duen kasu honetan. Politika publikoaren fenomeno amankomuna da (osasunean, hezkuntzan, gizarte-prestazioetan...). Premia handiena dutenei (baina onura gehien jasotzen ez dutenak suertatzen direnei) bideratutako politika jakin batzuen erabilgarritasunari erronkak ezartzen dizkion gai bat da.

Sinbolikoaren garrantziaren inguruan: bitartekaritzaren garrantzia

Kulturaren Euskal Behatokiaren aurretiazko emaitzek zera egiaztatu dute: mota sinbolikoko faktoreek nola funtzionatzen duten ulertzeko eta barne hartzeko premia, mota estruktural edo material klasikoko faktoreez haratago ulertuz parte-hartze kulturala, hau da, diru-sarrerez, hezkuntza-tituluez edo bizi-zikloari lotutako gaiez haratago (adina, lan-egoera, seme-alabak...).

Inkestaren azken edizioan dimentsio hau hobetu egin da inkestatuei zuzenean galdetuta hesi psikologikoei eta ezagutzazkoei buruz, kulturari ematen zaion balio pertsonal eta sozialari buruzko usteen eta parte-hartze kulturaleranzko motibazioekiko begiradaren modu osagarrian.

Aldagai berri hauek txertatzeak dimentsio sinboliko hau hobeto atzematea ahalbidetu du. Oso harreman argia ezartzen da parte-hartze kulturalaren mailarekin. Pertsonak

zenbat eta urruntasun psikologiko eta ezagutzazko handiagoa erakutsi, orduan eta txikiagoa da beren parte-hartze kulturala.

Ikusi diren estatistikoek eta linealtasunak adierazten dute faktore psikologiko hauek indar oso handia eragiten dutela. San Mateo efektuari buruzko gogoetari dagokionez, kolektibo espezifikoek orientatuko zaizkien publikoak zabaltzeko programen garrantzia erakusten dute, modu pedagogikoan egitea eskatuz, bitartekaritza artistiko eta kulturala kontuan hartuz. Batak bestea gabe, behatutakoaren ildotik, baliteke ez sortzea lortu nahi diren ondorioak, edo ez egitea beharrezkoa den potentzialarekin.

Modu zabalagoan kontuan hartu beharra dago, gai honen inguruan, kultura eta hezkuntzaren bidegurutzean edo kultura eta gizarte-zerbitzuen bidegurutzean lan egitea gai estrategiko bat dela kultur eskubideak biztanle kopuru handiago batera iristeko.

Bizi-zikloa: adinaren aldagaiaren gako-interpretazioa

Kontuan hartu diren adin-tarteak aldagai garrantzitsu gisa agertu dira parte-hartze kulturalako profil desberdinetan. Adinak paper hau jokatzeko dueneko mekanismoek bizi-zikloaren ikuskerarekin dute zerikusia. Ikuskera honek hainbat mekanismo ukitzen ditu ziklo honen etapa desberdinei dagokienez.

Adinak tarte bakoitzean kokatzen diren pertsonentzako oso alderdi orokorrak biltzen ditu, modu nabarmenean honako hauekin zerikusia dutenak:

- Egonkortasuna eta gaitasun ekonomikoa.
- Denboraren eskuragarritasuna eta banaketa.
- Osasun-egoera.
- Hezkuntza-maila.
- Trebetasun digitalak.
- Aisiarako lehenespenak.

Adina, modu honetan, fenomeno biologiko eta soziologikoa da. Azken zentzu honetan, badira gizarte batzuk (ekonomiari eta lanari,

ongizate-estatuari eta haren programei, aldaketa familiarrari etab. lotutakoak) gazte edo ama izatea definitzen dutenak (bi adibide aipatzeagatik). Adibidez, gazteen artean prekarietateari lotutako gaiengatik emantzipazio-adinaren atzerapenak zera eragiten du, gaur egun aurreko hamarkadetan baino luzeagoa den denboraldia izatea gaztaroa.

Beraz, pertsonen parte-hartze kulturala ulertzeko esanguratsuak diren aldagaien bidegurutze espezifikoak adierazten ditu adinak. Aldagai multzo bat da, ez bakarrik materialak edo estrukturalak diren aldagaiak bilduz, baizik eta gai sinbolikoetara eta mentaletara ere lotuta dauden aldagaiak ere.

Adinak kondentsatzen duen aldagai-sarean konplexutasuna gehitzen duen egitate bat zera da, “adin-efektua” deitutakoa biltzeaz gain (adibidez guztiontzat osasun-egoera aldatzen dela eta beraz parte-hartze kulturalerako inplikazioak partekatzen direla) baita “belaunaldi-efektua” eta

“kohortea” ere (adibidez, digitalaren eta kontsumo kulturalaren integrazioa eguneroko bizitzaren funtsezko zati gisa hurbileneko hamarkadetan jaiotako pertsonen artean). Zentzu honetan, gaur egungo pertsona gazteek gaur egungo pertsona helduek erakusten duten parte-hartze kultural bera ez erakustea espero daiteke, nahiz eta jarraitutasun batzuk egongo diren adinaren efektuaren ondorioz.

Faktore askoren eta elkarrekin gurutzatutako konplexutasuna... eta galtzen ari garena

Lehenik eta behin, egindako ariketak agerian uzten du badagoela errealitate bat “X gehiagorekin, parte-hartze kultural handiagoa” motako efektu lineal batekin esplikatzeko ez dena. Lan honek ate bat zabaltzen du sakontasun handiagoarekin esploratzeko aldagai batzuek beste aldagai jakin batzuekin gurutzatzen direnean nola funtzionatzen duten.

Ikusi ahal izan da, batzuetan, aldagai bereko kategoria batzuk hartze kulturalako

profil jakin batzuetara lotzen direla baina ez beste batzuetara. Bizi-ziklora lotutakoa bezalako gogoeta dira fenomeno honen erakusgarri bat: aldagai guztiek ez dute eraginen bat bizi-zikloaren etapa guztietan. Une jakin batzuetan aldagai batzuek ez dute inolako zentzurik parte-hartze kulturala ulertzeko, edo kategoria berak (diru-sarrera urriak) ez du eragin bera adin-aldagaiaren mutur batean (gazteak) eta bestean (adineko pertsonak). Zentzu honetan, adibidez, galdetu beharko genuke eta aztertu beharko genuke noiz dakarten diru-sarrera handiagoek parte-hartze kultural handiagoa (eta honek, beraz, diru-sarrerak egoera jakin batzuetan garrantzitsuak direla onartzea inplikatzeko du, eta diru-sarrera handiagoak ez direla lotzen automatikoki parte-hartze handiagoarekin).

Bigarren lekuan, gogoeta egin beharra dago behatzen ari garen faktoreekin lotuta ez dagoen parte-hartze kulturalan dagoen bariabilitate-zatiaren inguruan (aldagai demografikoak, ekonomikoak, psikologikoak... ereduaren zati direnak); galtzen ari garen zati hori. Nahiz eta

erabilitako teknika oinarrian honako hau den: patroia gutxi batzuetan errealitate konplexu bat deskribatzera orientatutako hurbilketa bat (profil kulturalak), horien karakterizazioak begirada esplikatibo bat ere eman nahi du. Hori kontuan hartuz, aurkezpenera bialdagaiko mailan batezbestekoen edo proportzioen konparaketa bat ezartzera mugatu da, baina **eranskin metodologikoan** teknika esplikatiboak aplikatu dira (erregresio logistiko multinominala) erlazioak hobeto ulertzeko. Zentzu honetan, nabarmentzekoa da, gizarte-zientzietan eta ohitura kulturalen eremuan ohikoa denez, ikusi den bariabilitatearen zati garrantzitsu bat azaldu gabe geratzen dela. Horrela, azaldutako bariabilitatearen zatiaren berri ematen duen estatistikoa balio baxu samarretan geratzen da; gizarte-zientzietako tipikoak izanik ere. Honako hau gizarte-zientzietan ohiko agertokia izateak ez du kentzen galdera hauek egiten jarraitzeko interesa: nola hobetu eredu estatistikoak eta, pertsonen gehiago edo gutxiago zergatik parte hartzen duten eta modu batean edo bestean zergatik parte hartzen duten

ulertzeko moduan sakontzea beste azterlan-teknika batzuen bidez.

Irakurketaren zeharkakotasuna: parte-hartze kulturalaren erdigunea?

Nabarmendutako zazpi profil kulturaletako bost profiletan, azken urtean gutxienez liburu bat irakurri izanaren probabilitatea oso handia da, % 85etik gorakoa kasu guztietan. Parte-hartze ertaina duten edo pixka bat txikiagoa duten profiletan ere, *Kontsumo klasiko ertaina* edo *Aldian behingo analogikoak* taldeko pertsonen taldean bezala, probableagoa da 4 liburu edo gehiago irakurri izana, 3 edo gutxiago irakurri izana baino.

Guztira zazpi profiletako gainerako bi profiletan, non kulturaren ez parte hartzeko probabilitate globala handiagoa baita (*Digital errezeptiboak* eta *Ez publikoa*), irakurketaren praktikak ez parte hartzeko probabilitate leunduagoa erakusten du.

Lehen kasuan, izan ere, *Digital errezeptiboak*, handiagoa da irakurtzeko probabilitatea (% 64) ez irakurtzekoa baino (% 36). Aldiz, antzerkira ez joateko probabilitatea % 61ekoa da, eta % 53koa eta % 48koa kontzertuen eta dantzaren kasuetan, hurrenez hurren.

Bigarren kasuan, *Ez publiko* gisa etiketatutako taldearenean zera azpimarratu beharra dago, ez parte hartzeko probabilitateen barruan, irakurketan probabilitate leunduena atzematen dela: kasu honetan ez irakurtzeko probabilitatea % 60an geratzen da, beste gainerako praktika guztietan beti delarik % 80tik gorakoa bai eta % 90etik gorakoa ere askotan.

Beraz, kasu batzuetan praktika honen ahultasuna kontuan hartuta ere, praktika zeharkakoena eta kontsolidatuena dela esan dezakegu. Hau bat dator Kulturaren Euskal Behatokiaren [Irakurketaren publikoen segmentazioa eta karakterizazioa](#) (2022) azterlanean dagoeneko ikusitakoarekin.

Emaitzek irakurketa parte-hartze kulturalaren gunean kokatzen dela interpretatzea ahalbidetzen dute. Zeharkako luzapen bat konbinatzen du eta, praktikaren izaeratik beragatik, beste praktika kultural batzuekiko intentsitate handiagoa. Horrek esan nahi du sarrerako ate gisa jardun dezakeela, baina era berean parte-hartze kulturalera konektatuta dirauen haria ere badela, parte-hartzea minimotara murrizten denean.

Digitalak, konektatu edo isolatu egiten du?

Parte-hartze digital errezeptiboak (elementu zentral gisa *streaming*-ean eduki digitaleko plataformen bidez telesailak ikustea izanik) eztabaidak eragiten jarraitzen du.

Izan ere, eguneroko solasaldietan kultura edo parte-hartze kulturala zer den edo zer ez denari buruzko balio-judizioak inplikatu ohi dituen gai horietako bat da, praktika kultural batzuk besteen gainetik hierarkizatuz eta legitimatuz. Honek, onartu beharra dago, pertsona jakin batzuk

urruntzen ditu, zeinak, praktika hauek eginez, uste baitute ez direla parte hartzen ari eta ez direla kultura kontsumitzen ari eta “arteak eta kultura ez direla beraiek bezalako pertsonentzat” (hesi psikologikoa). Modu berean, gai honek zerikusia du parte hartzeko modu desberdinei buruzko judiziorik ez egitearekin eta parte hartzeko moduak zabaltzearekin.

Zentzu honetan, parte-hartze errezeptibo digitala ez da beste parte-hartze batzuk baino eskasagoa. Badira hiru gauza ikuspegi jakin batzuk birplanteatzera behartzen gaituztenak:

- *Omniboro bizi-biziek* eta lasaiek kontsumo digital errezeptibo oso trinkoa egiten dute. Ez dago nahitaez modu batean edo bestean parte hartzearen arteko hautaketa bat. Parte hartzeko modu bakoitzaren izaera dela eta, konbinagarriak dira. Parte-hartze modu honetako praktika eta produktuek balio artistiko eta kultural ezaguterraza dute.

- Parte-hartze digital errezeptiboa da pertsona jakin batzuen parte-hartzearen nukleoa. Parte-hartze zabalago baterako sarrerako atearen potentziala dauka, zeharkakotasuna dauka.
- Parte-hartze modu honetatik baztertutako taldeak daude. Parte-hartze digital errezeptiboa erraztu egin behar da, ez mugatu.

Izan ere, parte-hartze kultural digitalaren bazterketan osagai zentral bat adina da, eta maila orokorreko faktore baztertzailerik bat da, ez bakarrik digitala. Bestalde, gazteenak dira praktika digitaletarako joera handiena dutenak. Zentzu honetan, ez dago berezko gauzarik praktika edo produktu digitaletan gehiago edo gutxiago “kulturalak” egiten dituztenak eta hierarkizazio bat justifikatzen dutenak. Kasu batzuetan isolatu edo konektatu egiten du, eta digitalak isolatzea edo konektatzea beste faktore batzuetan datza, hala nola bizitza-zikloa, haurtzaroko sozializazioa, alderdi psikologikoa...

8. Laburbilketa: alderdi nabarmenak

Txosten honek EAEko 2024ko Parte-hartze Kulturalaren Inkestaren emaitzak aurkeztu ditu biztanleengan parte-hartze kulturalako profil eta patroiak identifikatzeko helburuarekin. Ezagutza hau baliagarria da herritarrek artearekiko eta kulturarekiko dituzten desberdintasunak eta lehentasunak ezagutzeko eta politika kultural informatuagoetan aurrera egiteko; ebidentzia enpirikoari babesa emanez orientatu ahal izateko eta bere helburuak lortzeko ahaleginean hobetzeko.

EAEko publiko kulturalen segmentazioak zazpi profil desberdindu erakusten ditu, parte-hartzearen intentsitatearen eta motaren arabera: *omniboro bizi-bizietatik ez-publikoraino*. Sailkapen honek gehiago nork parte-hartzen duen atzemateaz gain, nola egiten duen ere atzematen du: jarduera aniztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, formatu presentzialetan, digitaletan,

aktiboetan edo errezeptiboetan. Hiru talde aktiboenek biztanleriaren % 31,5 biltzen dute, eta aktibitate gutxieneko hiruek % 42,4 batzen dute.

Profil bakoitza praktika kulturalen konbinazio espezifikoaren arabera eratzen da, ez bakarrik bolumenagatik. Talde batzuek kontsumo digitalerantzko lehentasunezko joera bat erakusten dute (*digital errezeptiboa bakarrik*), beste batzuek analogikoa digitalarekin konbinatzen dute (*aktiboak eta konektatuak*), eta batzuk ia bakar-bakarrik jarduera tradizional presentzialetan zentratzen dira (*kontsumo klasiko ertaina edo aldi behingo parte-hartze analogikoa*). Aniztasun horrek zera iradokitzen du, sarbide-mota, ohiturak eta motibazioak egindako jarduera kopurua bezain garrantzitsuak direla.

Hainbat faktore soziologiko nabarmentzen dira profilen egituratzaile gisa, hauek nabarmentzen direlarik:

- Adina bizi-ziklo gisa: honako hauekin lotutako alderdiak mugatzen edo

kondentsatzen ditu: denbora libre, konpetentzia digitalak, testuinguru familiarra eta gaitasun ekonomikoa. Eragin handia dauka, klabe horretan ulertu daitekeena.

- Kapital kultural heredatua: Haurtzaroan praktika kulturalen eraginpean egon izana modu argian lotzen da helduaroko parte-hartze handiagoarekin, gaitasunak eskuratu direlako, gustuaren garapenagatik eta hesi psikologikoak saihesten dituelako agian.
- Hesi psikologiko eta jakintzakoak (“autoestimua kultural” baxua eta “alfabetizazio” artistikorik eza). Aldagai hauek indar esplikatibo indartsua dute eta ez dira beti kontuan hartzen. Parte-hartze baxuarekin estu lotuta daude, batzuetan modu independentean hezkuntza-mailarekiko edo beste aldagai garrantzitsuekiko.

Beste aldagai batzuek, diru-sarrerak, sexuak eta hiriaren tamainak eragin espezifikoagoak edo mugatuagoak dituzte. Ohar garrantzitsu bat, konplexutasun maila

bat gehitzen duena zera da, parte-hartze kulturalarekin modu linealean erlazionatzen ez diren faktore batzuk badaudela: badira aldagai batzuk eta aldagai hauetako kategoria batzuk profil batzuetarako eragina dutenak, baina beste batzuetarako eraginik ez dutenak. Horregatik da profilen karakterizazio zabala (bakoitzaren **fitxetan** laburbildua), eta hauen guztien irakurketa zeharkako edo konparatua, hain garrantzitsua egoera hobeto ulertzeko: kasu askotan kontraposizioak dira ezaugarri propioak nabarmentzen laguntzen dutenak.

Hemen aurkeztutako emaitzek publikoen segmentaziotik sustapenera itzultzeko potentziala daukate. Publikoen segmentazioa da ekintza estrategiko espezifikoaren orientabiderako oinarria. Modu orientatiboan, identifikatutako profiletatik abiatuta, kasu bakoitzerako ad-hoc neurriak asma daitezke:

- Omniboro bizi-bizirik (% 8,6): Oso aktiboak dira eta aliatu estrategikoak izan daitezke modu aktiboan, “prosumitzaile” moduan.

- Programazio espezializatua, koprodukzio-guneak eta bitartekaritzarako edo boluntariotza kulturalerako aukerak eskaintzea beraiei.
- Omniboro lasaia (% 8,3): Asko parte hartzen dute baina bizi-bizirik baino intentsitate txikiagoarekin.
 - Jarraitasuna eta fidelizazioa sustatzea proposamen hibrido bidez (presentziala/digitala) eta sarbide familiarra edo taldekoa erraztea.
- Aktiboak eta konektatuak (% 14,6): Gazteak, aktiboak eta digitalak.
 - Sortzaile gisa duten rola indartzea programazio partizipatiboan, eduki digitalen lineako komunitateen sorkuntzan inplikaturik, eta beste gazte batzuekiko enbaxadore gisa jardun dezatela erraztea.
- Kontsumo klasiko ertaina (% 26,1): Talde majoritario eta egonkorra, baina gutxi inplikaturik.
 - Eskaintza konbentzionala dibertsifikatzea praktika berriak

- estimulatzeko (adibidez, aurretiko tailerrak, bisitaldi komentatuak).
- Aldian behingo parte-hartze analogikoa (% 6,7): Gutxi parte hartzen dute eta bakarrik tradizionalenean.
 - Eskuragarritasunarekin lotutako alderdiak indartzea, hurbiltasunetik jardutea eta konpromiso baxuko esperientzia sartzaileak erraztea.
- Digital errezeptiboa bakarrik (% 25,1): Publiko gaztea, digitalki konektaturik eta interesaturik baina praktika presentzialetatik urrundua.
 - Kontsumitzen duten eskaintza digitalarekin zubiak sortzea eta taldeko esperientziak erraztea.
- Ez publikoa (% 10,6): Urrundua eta metatutako hesiekin, adin aurreratukoa.
 - Bitartekaritza, komunitariotik eta beste eremu batzuekiko intersektioetik lan egitea (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak).

Eranskina

9. Inkestaren fitxa

Biztanleria- eta administrazio-eremua	Euskal Autonomia Erkidegoa
Denbora-eremua	2023ko abendua-2024ko martxoa
Laginaren diseinua	Laginketa aleatorio estratifikatua afijazio ez proportzionalarekin
Tamaina	4.700
Laginaren errorea	±% 1,46 (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean eskura dagoen txosten metodologikoan gurutzaketako aldagaiak osatzen dituzten kategorietarako lagin-errorearen balioespena kontsulta daiteke)
Konfiantza-maila	% 95,5 goreneko indeterminazioko balizkoaren pean (p=q=% 50)
Estratuak eta kuotak	• Administrazio-eremuak • Udalerriko biztanleria-tamaina • Sexua • Adina • Euskararen ezagutza
Elkarrizketak egiteko metodoa	Elkarrizketa telefonikoa, ordenagailu bidez lagundua
Ponderazioa	Datuak ponderatuak daude biztanleria modu egokian ordezkatzeko, lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), udalerriaren tamainaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren (euskal hiztunak ala ez) arabera orekatuz

10. Metodologia

1. eranskinaren taula. Aldagai bakoitzaren batezbestekoa patroia edo talde kulturalen arabera

Aldagaia	Interpretazioa	Omniborismo bizi-bizia	Omniborismo lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumitzaile klasiko ertaina	Noizean behingo parte-hartze analogikoa	Digital errezetiboa bakarrik	Publikoa ez dena	Batezbesteko orokorra
Adin-tartea	10 urteko adin-tarteak, gutxiagotik gehiagora	3,05	3,08	2,30	3,36	5,02	3,60	5,42	3,55
Ikasketa-maila	Tarteak gutxiagotik gehiagora	4,35	4,20	4,14	4,24	3,44	3,67	2,44	3,85
Hautzaro errezetiboko batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	3,61	3,35	3,28	3,06	2,66	2,47	1,88	2,86
Gurasoaren maila (ama)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	3,05	2,95	3,30	2,75	1,70	2,26	1,43	2,55
Gastu kulturala	Hilabeteko kopurua eurotan	113,95	75,46	76,46	77,41	56,45	40,53	14,95	63,13
Hautzaro aktiboen batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	2,75	2,42	2,53	2,10	1,80	1,89	1,47	2,10
1. gurasoaren maila (aita)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	3,15	2,99	3,43	2,93	1,99	2,38	1,59	2,69
Euskalduna	1 = Erdalduna, 2 = Euskalduna	1,59	1,59	1,63	1,47	1,29	1,27	1,17	1,42
Kulturaren balo pertsonala	Arteak eta kulturak asebeteta sentiarazten naute. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	3,45	3,13	3,15	2,96	2,97	2,55	2,53	2,90
Infomazio kulturalaren maila		1,96	2,14	2,34	2,31	2,20	2,64	2,79	2,40
Ikasketa-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	0,7512	0,5553	0,6268	0,4335	0,2025	0,2625	0,0362	0,3987
Prestazioen onuraduna	1 = Ez, 2 = Bai	1,24	1,25	1,13	1,21	1,57	1,33	1,70	1,31
Inguruko eskaintza kopuruaren hesia	Gehiago parte hartuko nuke bizi naizen lekuan jarduerak kulturetan eskaintza zabalagoa balego. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	3,05	2,86	2,98	2,71	2,57	2,48	1,98	2,65
Hesi psikologikoa	Egia esan, arteak ez dira ni bezalako jendearentzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	1,12	1,26	1,28	1,28	1,40	1,46	1,79	1,37
Kulturaren balo soziala	Arteak eta kultura oso garrantzitsuak dira gizarte hobea lortzeko. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	3,83	3,70	3,68	3,60	3,64	3,39	3,35	3,56
Ezagutzaren hesia	Kasu gehienetan, arteaz eta kulturaz gozatzea ezagutza batzuk eskatzen ditu, eta nik ez daukat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	1,37	1,54	1,63	1,61	1,82	1,87	2,10	1,72
Kulturaz bestelako zaletasun kopurua	5 tarte gutxiagotik gehiagora	3,14	3,12	3,43	3,13	2,50	2,92	2,07	2,97
Boluntario-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	0,2906	0,2005	0,1414	0,1127	0,1297	0,0466	0,0342	0,1157
Lan-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	1,1872	1,1722	1,3659	1,3788	0,5854	1,1431	0,3380	1,1206
Betebeharrengatik okupatutako orduak	5 tarte gutxiagotik gehiagora	3,02	3,05	3,15	3,11	2,25	2,90	1,95	2,87
Etxeo eta zaintzako laneko orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	1,6148	1,9203	1,6015	1,8059	2,2045	2,0716	2,1798	1,9018
Prezioaren hesia	Jarduera eta produktu kulturalen prezioa erabakigarria da niretzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	2,75	2,65	2,79	2,56	2,43	2,54	2,09	2,55
Kulturarako motibazioa	1=Soziala eta emozionala, 2=Kulturala eta sinbolikoa	1,63	1,53	1,51	1,47	1,52	1,42	1,45	1,48
Hilabete bukaerara iristeko zaletasuna	Tarteak gutxiagotik gehiagora	1,91	1,86	1,99	1,78	1,88	2,24	2,16	1,99
Jaiotzako jatorria	Gutxiagotik (Euskadi) gehiagora (Mundua). 1 = Euskadi, 2 = Estatu Espainiarra, 3 = Europa, 4 = Munduaren gainerakoa	1,23	1,44	1,36	1,31	1,32	1,57	1,45	1,40
Hiriaren tamaina	1 = 50.000tik beherako hiriak, 2 = 50.000tik gorako hiriak eta hiriburuak	1,70	1,62	1,61	1,66	1,60	1,60	1,51	1,62
Sexua	Balioa 1 = Gizonak, 2 = Emakumeak	1,50	1,50	1,48	1,45	1,64	1,51	1,61	1,51
Diru-sarreraren tartean	Tarteak gutxiagotik gehiagora	4,31	4,31	3,92	4,57	4,18	4,16	3,74	4,22
Adin biko seme-alaben kopurua	0 = Bat ere ez, 1 = 1 seme, 2 = 2 seme, 3 = 3 edo gehiago	0,3160	0,6211	0,3752	0,4959	0,3302	0,5200	0,0905	0,4251
Seme-alabekin bizikidetzatza bal/ez	0 = Ez, 1 = Bai	0,24	0,40	0,23	0,40	0,34	0,41	0,23	0,34
14 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		0,0911	0,1080	0,0787	0,1159	0,0949	0,1084	0,0121	0,0934
18 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		0,0911	0,0925	0,0831	0,1012	0,0728	0,1067	0,0181	0,0877
Taldearen hesia	Noizean behin, kultur jarduerak egitea gustatuko litzaidake, baina ez daukat norekin joan. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	1,89	1,79	2,08	1,85	1,72	1,93	1,76	1,88
10 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		0,0764	0,2468	0,1414	0,1559	0,0886	0,1956	0,0382	0,1474

2. eranskinaren taula. Aldagai bakoitzaren batezbestekoarekiko aldearen portzentajea patroii edo talde kulturalen arabera

		Omniborismo bizi-bizia	Omniborismo lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumitzaila klasiko ertaina	Noizean behingo parte- hartze analogikoa	Digital erzeptiboa bakarrik	Publikoa ez dena
Adin-tarteak	10 urteko adin-tarteak gutxiagotik gehiagora	-14,00	-13,14	-35,16	-5,19	41,56	1,55	52,94
Ikasketa-maila	Tarteak gutxiagotik gehiagora	13,00	9,25	7,64	10,25	-10,48	-4,54	-36,48
Hautzaro errezeptiboko batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	26,17	16,83	14,40	6,80	-6,95	-13,90	-34,23
Gurasoaren maila (ama)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	19,81	15,70	29,58	8,10	-33,11	-11,21	-43,80
Gastu kulturala	Hilabeteko kopurua eurotan	80,49	19,52	21,10	22,61	-10,59	-35,81	-76,32
Hautzaro aktiboaren batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	30,58	14,82	20,07	-0,43	-14,29	-10,04	-30,36
1. gurasoaren maila (aita)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	17,10	11,27	27,62	8,88	-26,05	-11,51	-40,67
Euskalduna	1 = Erdalduna, 2 = Euskalduna	12,14	11,78	14,75	3,44	-9,23	-10,37	-17,47
Kulturaren balio pertsonala	Arteak eta kulturak asebeteta sentiarazten naute. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	18,82	7,80	8,60	2,17	2,57	-12,01	-12,63
Informazio kulturalaren maila		-18,11	-10,56	-2,42	-3,75	-8,17	10,24	16,49
Ikasketa-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	88,41	39,26	57,21	8,71	-49,20	-34,17	-90,92
Prestazioen onuraduna	1 = Ez, 2 = Bai	-5,30	-4,84	-13,58	-7,67	19,74	1,39	29,85
Inguruko eskaintza kopuruaren hesia	Gehiago parte hartuko nuke bizi naizen lekuan jarduera kulturetan eskaintza zabalagoa balego. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	15,22	7,81	12,60	2,19	-2,87	-6,20	-25,35
Hesi psikologikoa	Egia esan, arteak ez dira ni bezalakoa jendearentzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	-18,39	-8,25	-6,45	-6,68	2,11	6,62	30,82
Kulturaren balio soziala	Arteak eta kultura oso garrantzitsuak dira gizarte hobea lortzeko. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	7,35	3,73	3,15	0,95	2,14	-4,74	-5,96
Ezagutzaren hesia	Kasu gehienetan, arteaz eta kulturaz gozatzeak ezagutza batzuk eskatzen ditu, eta nik ez dauzkat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	-20,43	-10,12	-4,92	-6,25	6,31	8,85	22,63
Kulturaz bestelako zaletasun kopurua	5 tarte gutxiagotik gehiagora	5,79	5,04	15,74	5,54	-15,61	-1,66	-30,20
Boluntario-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	151,10	73,24	22,16	-2,67	12,10	-59,76	-70,45
Lan-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	5,94	4,60	21,88	23,03	-47,76	2,00	-69,84
Betebeharrengatik okupaturako orduak	5 tarte gutxiagotik gehiagora	5,19	6,30	9,64	8,49	-21,73	1,00	-31,94
Ebeko eta zaintzako laneko orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	-15,09	0,98	-15,79	-5,04	15,92	8,93	14,62
Prezioaren hesia	Jarduera eta produktu kulturalen prezioa erabakigarria da niretzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	7,75	3,56	9,21	0,15	-4,82	-0,59	-18,28
Kulturarako motibazioa	1=Soziala eta emozionala, 2=Kulturala eta sinbolikoa	10,07	3,10	1,79	-0,90	2,38	-4,40	-1,95
Hilabete bukaerara iristeko zailtasuna	Tarteak gutxiagotik gehiagora	-4,15	-6,20	-0,04	-10,61	-5,62	12,47	8,57
Jaiotzako jatorria	Gutxiagotik (Euskadi) gehiagora (Mundua). 1 = Euskadi, 2 = Estatu Espainiarra, 3 = Europa, 4 = Munduaren gainerakoa	-12,30	2,72	-2,96	-6,51	-6,07	11,95	3,51
Hiriaren tamaina	1 = 50.000tik beherako hiriak, 2 = 50.000tik gorako hiriak eta hiriburuak	5,23	0,13	-0,23	2,56	-1,20	-1,21	-6,70
Sexua	Balioa 1 = Gizonak, 2 = Emakumeak	-0,43	-0,85	-2,04	-3,70	8,64	0,33	6,68
Diru-sameren tartean	Tarteak gutxiagotik gehiagora	2,21	2,31	-6,98	8,28	-0,75	-1,28	-11,33
Adin txikiko seme-alaben kopurua	0 = Bat ere ez, 1 = 1 seme, 2 =2 seme, 3=3 edo gehiago	-25,65	46,13	-11,74	16,67	-22,33	22,33	-78,70
Seme-alabekin bizikidetzatza bai/ez	0 = Ez, 1 = Bai	-29,10	16,33	-32,33	16,52	-0,72	19,67	-31,39
14 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		-2,43	15,59	-15,72	24,10	1,64	16,04	-87,08
18 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		3,96	5,57	-5,21	15,47	-16,97	21,71	-79,34
Taldearen hesia	Noizean behin, kultur jarduerak egitea gustatuko litzaidake, baina ez daukat norekin joan. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	0,50	-5,20	10,62	-1,75	-8,87	2,24	-6,44
10 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzatza		-48,22	67,37	-4,10	5,75	-39,91	32,66	-74,07

3. eranskinaren taula. Aldagaien ANOVA testaren emaitzak parte-hartze kultureko taldeekiko edo patroiakiko

Aldagaia	Interpretazioa	Linealtasunaren F balioa	Linealtasunaren desbideraketaren F balioa
Adin-tartea	10 urteko adin-tarteak, gutxiagotik gehiagora	867,779	182,178
Ikasketa-maila	Tarteak gutxiagotik gehiagora	726,276	85,026
Hautzaro errezepitiboko batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	637,496	8,179
Gurasoaren maila (ama)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	575,132	48,188
Gastu kulturala	Hilabeteko kopurua eurotan	564,454	14,258
Hautzaro aktiboen batura	5 tarte gutxiagotik gehiagora	532,522	12,462
1. gurasoaren maila (aita)	Ikasketa-mailak gutxiagotik gehiagora	479,878	40,699
Euskalduna	1 = Erdalduna, 2 = Euskalduna	471,973	12,956
Kulturaren balio pertsonala	Arteak eta kulturak asebeteta sentiarazten naute. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	403,302	6,421
Informazio kulturalaren maila		398,411	13,439
Ikasketa-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	347,400	7,123
Prestazioen onuraduna	1 = Ez, 2 = Bai	335,464	78,596
Inguruko eskaintza kopuruaren hesia	Gehiago parte hartuko nuke bizi naizen lekuan jarduera kulturetan eskaintza zabalagoa balego. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	302,188	11,935
Hesi psikologikoa	Egia esan, arteak ez dira ni bezalako jendearentzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	217,067	11,706
Kulturaren balio soziala	Arteak eta kultura oso garrantzitsuak dira gizarte hobea lortzeko. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	208,952	3,554
Ezagutzaaren hesia	Kasu gehienetan, arteaz eta kulturaz gozatzeak ezagutza batzuk eskatzen ditu, eta nik ez daukat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	191,727	3,949
Kulturaz bestelako zaletasun kopurua	5 tarte gutxiagotik gehiagora	179,289	35,714
Boluntario-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	172,563	3,715
Lan-orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	163,404	70,242
Betebeharrengatik okupaturako orduak	5 tarte gutxiagotik gehiagora	161,698	50,127
Etxeko eta zaintzako laneko orduak	Tarteak gutxiagotik gehiagora	78,859	7,500
Prezioaren hesia	Jarduera eta produktu kulturalen prezioa erabakigarria da niretzat. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	76,874	10,101
Kulturarako motibazioa	1=Soziala eta emozionala, 2=Kulturala eta sinbolikoa	48,373	3,656
Hilabete bukaerara iristeko zailtasuna	Tarteak gutxiagotik gehiagora	44,938	11,741
Jaiotzako jatorria	Gutxiagotik (Euskadi) gehiagora (Mundua). 1 = Euskadi, 2 = Estatu Espainiarra, 3 = Europa, 4 = Munduaren gainerakoa	36,190	8,237
Hiriaren tamaina	1 = 50.000tik beherako hiriak, 2 = 50.000tik gorako hiriak eta hiriburuak	28,577	4,038
Sexua	Balioa 1 = Gizonak, 2 = Emakumeak	15,893	8,957
Diru-sarreraren tartean	Tarteak gutxiagotik gehiagora	12,922	17,352
Adin txikiko seme-alaben kopurua	0 = Bat ere ez, 1 = 1 seme, 2 =2 seme, 3=3 edo gehiago	9,627	30,876
Seme-alabekin bizikidetzat bai/ez	0 = Ez, 1 = Bai	7,016	24,239
14 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzat		5,617	9,386
18 urtetik beherako seme-alabekin bizikidetzat		3,938	7,159
Taldearen hesia	Noizean behin, kultur jarduerak egitea gustatuko litzaidake, baina ez daukat norekin joan. 1= Oso desados, 4 = Oso ados	2,457	8,413

4. eranskinaren taula. Profil desberdinetako kategoria bakoitzekoa izateko probabilitatea

		Jatorrizko numerazioa	Rankinga	6. profila	1. profila	2. profila	3. profila	5. profila	7. profila	4. profila
				1	2	3	4	5	6	7
Modua	Esparrua	Kategoriak		Omniboroak eta jatun bizi-bizirik	Omniboro lasaia	Aktiboak eta konektatuak	Kontsumi-tzaile ertaina	Aldian behingo analogikoak	Digital errezeptiboak	Publikoa ez dena
Hartzailea	Antzerkia	Inoiz ez		0,08	0,23	0,30	0,20	0,26	0,61	0,87
		Maiztasun txikia (1-3)		0,32	0,37	0,48	0,51	0,49	0,33	0,12
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,28	0,28	0,17	0,18	0,18	0,05	0,01
		Maiztasun handia (7+)		0,33	0,12	0,05	0,11	0,08	0,01	0,00
	Dantza	Inoiz ez		0,30	0,55	0,59	0,65	0,56	0,83	0,88
		Maiztasun txikia (1-3)		0,45	0,39	0,35	0,27	0,32	0,15	0,11
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,15	0,05	0,04	0,06	0,09	0,02	0,00
		Maiztasun handia (7+)		0,10	0,01	0,02	0,02	0,03	0,01	0,00
	Kontzertuak	Inoiz ez		0,03	0,18	0,07	0,14	0,35	0,53	0,81
		Maiztasun txikia (1-3)		0,19	0,39	0,34	0,44	0,39	0,35	0,16
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,26	0,18	0,23	0,25	0,18	0,08	0,03
		Maiztasun handia (7+)		0,51	0,24	0,36	0,17	0,08	0,05	0,01
	Zinema	Inoiz ez		0,06	0,15	0,16	0,14	0,33	0,48	0,89
		Maiztasun txikia (1-3)		0,21	0,34	0,41	0,33	0,32	0,33	0,08
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,26	0,24	0,24	0,24	0,20	0,11	0,02
		Maiztasun handia (7+)		0,47	0,26	0,19	0,29	0,15	0,08	0,01
	Liburutegia	Inoiz ez		0,22	0,00	0,51	0,52	0,52	0,76	0,93
		Maiztasun txikia (1-3)		0,12	0,18	0,17	0,17	0,16	0,11	0,03
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,12	0,16	0,08	0,09	0,08	0,05	0,01
		Maiztasun handia (7+)		0,54	0,66	0,24	0,22	0,23	0,09	0,02
	Liburutegia-Beste jarduera batzuk	Inoiz ez		0,67	0,24	1,00	1,00	0,87	0,99	1,00
		Behin edo gehiagotan		0,33	0,76	0,00	0,00	0,13	0,01	0,00
	Irakurketa	Liburu bakar bat ere ez		0,04	0,06	0,16	0,11	0,14	0,36	0,60
		Maiztasun txikia (1-3)		0,16	0,19	0,39	0,29	0,30	0,32	0,22
		Maiztasun ertaina (4-6)		0,19	0,30	0,20	0,24	0,18	0,14	0,08
		Maiztasun handia (7+)		0,61	0,45	0,25	0,36	0,39	0,18	0,10

4. eranskinaren taula. Profil desberdinetako kategoria bakoitzekoa izateko probabilitatea

Aktiboa	Hitzaldiak	Inoiz ez	0,32	0,54	0,4	0,85	0,4	0,95	0,99	
		Maiztasun txikia (1-3)	0,33	0,34	0,21	0,13	0,17	0,05	0,01	
		Maiztasun ertaina (4-6)	0,17	0,06	0,04	0,02	0,05	0,00	0,00	
		Maiztasun handia (7+)	0,18	0,05	0,01	0,00	0,04	0,00	0,00	
	Museoak	Inoiz ez	0,03	0,21	0,28	0,15	0,34	0,4	0,92	
		Maiztasun txikia (1-3)	0,28	0,56	0,59	0,59	0,51	0,25	0,07	
		Maiztasun ertaina (4-6)	0,34	0,17	0,11	0,18	0,11	0,01	0,00	
		Maiztasun handia (7+)	0,34	0,07	0,02	0,08	0,04	0,00	0,00	
	Arte-galeriak	Inoiz ez	0,27	0,64	0,66	0,65	0,73	0,95	0,98	
		Maiztasun txikia (1-3)	0,44	0,36	0,33	0,31	0,24	0,05	0,02	
		Maiztasun ertaina (4-6)	0,18	0,00	0,00	0,03	0,03	0,00	0,00	
		Maiztasun handia (7+)	0,10	0,00	0,00	0,01	0,01	0,00	0,00	
	Praktika artistiko amateurak (intentsitatea)	Asoziazionismoa	Elkarte bakar batean ere ez	0,60	0,76	0,78	0,92	0,82	0,95	0,97
			Batean	0,28	0,19	0,17	0,08	0,16	0,04	0,03
			Batean baino gehiagotan	0,12	0,05	0,05	0,00	0,02	0,01	0,00
		Bat ere ez	Bat ere ez	0,09	0,37	0,32	0,59	0,60	0,68	0,83
Intentsitate txikia			0,06	0,13	0,11	0,13	0,08	0,09	0,04	
Intentsitate ertaina			0,24	0,18	0,25	0,18	0,19	0,15	0,11	
Intentsitate handia			0,61	0,32	0,32	0,11	0,13	0,08	0,02	
Praktika digital errezeptibo klasikoak			Bat ere ez	Bat ere ez	0,02	0,00	0,00	0,00	0,70	0,02
	Mota bat	0,04		0,09	0,07	0,14	0,20	0,25	0,13	
	Bi mota	0,30		0,46	0,41	0,50	0,08	0,53	0,06	
	Hiru mota edo gehiago	0,64		0,45	0,52	0,35	0,02	0,20	0,01	
	Bat ere ez	Bat ere ez	0,02	0,00	0,00	0,00	0,72	0,02	0,90	
		Mota bat	0,05	0,09	0,01	0,14	0,20	0,27	0,09	
		Bi mota	0,19	0,25	0,12	0,32	0,08	0,33	0,01	
		Hiru mota edo gehiago	0,4	0,67	0,87	0,54	0,00	0,38	0,00	
Praktika digital aktiboak	Bat ere ez	Bat ere ez	0,36	0,57	0,19	0,78	0,98	0,75	0,99	
		Mota bat	0,11	0,17	0,21	0,19	0,01	0,14	0,01	
		Bi mota	0,16	0,15	0,30	0,03	0,00	0,07	0,00	
		Hiru mota edo gehiago	0,37	0,10	0,29	0,01	0,00	0,04	0,00	

5. eranskinaren taula. Erregresio logistiko multinominalaren emaitza nagusiak

Pseudo R karratua	
Cox y Snell	0,581
Nagelkerke	0,597
McFadden	0,240

Egiantzekotasun-arrazoiaren frogak				
	Ereduaren egokitze-irizpideak	Egiantzekotasun-arrazoiaren frogak		
	Egiantzekotasunaren logaritmoa -2 eredu murriztukoak	Chi-karratua	gl	Sig.
Adin-tartea	12141,568	263,180	30	0,000
Informazio-maila	12078,785	200,397	18	0,000
Ikasketa-maila	12015,746	137,358	24	0,000
Balio pertsonala	11980,620	102,232	18	0,000
Afizio desberdinen kopurua	11977,450	99,061	24	0,000
Hautzaroko jarduera aktiboak	11976,269	97,881	18	0,000
Ikasketa-orduak	11970,600	92,212	6	0,000
Hautzaroko jarduera errezeptiboak	11945,724	67,336	24	0,000
Lan-orduak	11937,021	58,633	12	0,000
Zailtasuna hilabete amaieran	11936,016	57,628	24	0,000
Etxean dauden adin txikiko seme-alabak guztira	11935,092	56,704	18	0,000
Hesi psikologikoak	11931,654	53,266	18	0,000
Hesi geografikoak	11928,916	50,528	18	0,000
Ezagutza-hesiak	11914,866	36,478	18	0,006
Gurasoaren hezkuntza-maila (ama)	11914,377	35,989	24	0,055
Jaiotzako jatorria	11912,630	34,242	18	0,012
Hesi ekonomikoak	11911,879	33,491	18	0,015
Hiriaren tamaina birkodifikatua	11911,693	33,305	6	0,000
Sexua	11909,192	30,804	6	0,000
Euskalduna	11908,942	30,554	6	0,000
Motibazioak	11905,411	27,023	6	0,000
Intersekzioa	11878,388	0,000	0	